



MATXIN MUNGIARRA

Pillipa Zugatzaga «J.L. Zutagape»

Iturria: *Matxin mungiarra*, J.L. Zutagape. *Euskalzale*, 1899, X-XXVII. zenbakiak.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/Z/ZutagapeMatxin.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

MATXIN MUNGIARRA

*«Diligenter investiga patrum memoriam:
et ipsi docbunt te». (Job. 8).*
«Arduraz arakatu asaben gomutea,
eta eurak irakatsiko dautsue».



IRAKURLEARI

Adiskidea: iru gizaldi baiño lenagoko gauzak ikusi ta entzutera eroan gura zaitudaz-da, ibilli ta ibilliaz elduko bagiña, asiko gintzakez oraindixek ariñeketan eta nekatuten gintzazaneko, ondo baleritxazu, artuko gendukez geuk bere Peru ta Marien ipuinetan ikusi daroaguzanez giñarra kirten-luzedunak eta euren ganean izterkolaka iarririk naiñoratuko gintzatekez beiño-baten, edo obeto esatearren ez geunke orretarikoren bearrik izango burdin-bide ta suzko burdiak purruztadaka iabilkuzan ezkerro gura dogun Bizkaiko alderdira ioateko; baia eunkada ta gizaldietan ezta zelai ta aldatzetan legez ibilli ta ibilliaz eta ioan da ioanaz, nai oñez nai burdieten, ezer aurreratuten; esan gura dogu ezta arean atzeratuten igaro direan aldietako iazoerak geure begiakaz ikusi ta euretan aurkitu zireanen aotik alan ete zan ala ez entzuteko. Agaitik liburu zar eta barrietarik eta aoz ao asabakandik belaunik belau etorri iakuna laguntzat artuten dogula, eta batez bere igarlatxu bati belarrira esan daigula agindu deusagunaz aldutuko gara antxiñako iazo-aldietara geure begi ta belarriakaz ikusi ta entzuteko. Iakin-gurea bazara, beste asko legez, iarraitu eikeozu irakurteari aspertuten zarean arte, eta parkatu eiguzu bear-bada ain ezagunak iatzuzan gertaerak azalduten baiatzuz; bada idoro leite besteren bat zuk aña entzun eztauana, ta onek pozik irakurri gurako dau zuri lo-gurea emoten deusuna. Orain Bizkai aldebateko etxaguntza ezaugarri baten entzungo doguz entzutekoak eta ara eldu baiño lenago iragarri bear dogu toki ori zelangoa dan, urrengoan lagun barik ioan gura dozuneko.

I. ANTXIÑAKO ETXAGUNTZA BAT

Loraz eta bitxi ederrez estalduten dan zelai galantean Iaungoikoak apaingarririk onenak bertan zabaldu gura izan euazala dirudien ibaitxu baten urakaz eskotu ta oratuten dan mune goraberadun erreskaden oiñean eta ibaitxu orren iparraldeko atzetik ez urrin dagon landa zoragarrian, amargarren gizaldian nekezariak eregiriko Elizatxu bat gaillurtuten zan oraindiño amaseigarrenean bere Andra Mariaren izen gozoaz, larogeta amairu oiñ luzeran eta ogetazortzi inguru zabaleran zeruzapai onak eukazana. Etzan orduan elduko eun da larogetalau auzotik gora eukan etxepillo guztia, zazpi baserrialdetan zatiturik, eta or-emen ereinda legez egozan etxaguntzarik onenak. Onetariko batera goazan, arako A... deritxonera. Begiratu eikezu inguru-mari guztira: orrek bai solo ederrak; lur bigun eta baltzak dakutsuz inguruan, ongarria bear-ala ta geiago daukela agiri iake eta auzoetako baserriarrak andik zear iragoten direan bako-txean esan daroe: «Aberats dagoz-ba lurrok». Etxaguntza onetan ene ustez 50 edo 60 bat anega gari ta eun bat anega arto artuko dauetz. Orrako basoak bere etxaguntza onixenak dira arizti galantak, gaztaiñadi ez txar-ragoak, gaztaiñea baiño eztana emoten daue-ba-ta, andik doian bide zorretik igaroten danari begiak zabal-zabal egiten iakoz euren kirikiño arrakalatuari begira. Solo ertzetako muna danak barriz sagar mueta askoz beterik daukazuz etxerako laiñ sagardao egin-da gero bere sagarra ugari geratuten iake oraindiño etxerako ta auzorako. Ango arlo goiena ta mendiska barrena estaliten danan maztiak eta atarte ta etxeko ormak gerizpetuten dauzan matsareai begira dagozanen begiak atseginduten dauz, orain beren orri mardoakaz ta morda garaun ori-elduakaz, eta gero dolaretan estututa emongo dauan edaria biotzen pozgarria izango da. Ara ba, aurrez aur begira zagokoz etxe oni; ogetamar bat oinkada badaukaz alde bakotxak, eta kortara sartuko bazintzaz neguko egunen baten aurkituko zeunkez bertan ogei edo ogetamar buru, idi, zekor, bei, bigintxa, idizko, txal, abelgorri ta beste mueten artean, txabolan dagozan ardi ta auntsak aitatuten eztoguzala... Zeri begira zagoz? Etxaurrean dakutsun etxetxu orri? Etzenduan oraiñarte olako asko ezautuko. Urrituaz doaz: *garaiak* deritxoe gure izkuntzan, beste alderdi batzuetan, *arnagak* deitu daroatze eta aletegiak, eztakit zegaitik garaian dagozalako edo, ta arrizko oin-agak daukazalako edo... urrengoan baten iñon iratsita idoroten badot agertuko



deutsut. Gura dozu iakin zetarako dan? Eregiten zirean azi ta garauak, gaztaiña ta intxaurrak, sagarrak eta enparauak gordeteko. Lau metarri edo arroiñ biri-billoen ganean daukoz beste lau errotarri dirudienok, sagurik ez katamielarik ez azkonarrik igon ez daiten garautegira, eta gero lau aga edo abe laurkan ganean daukan olezko etxeari eutsiten. Au barriz iru alegi edo gelatan banatuten da, eta erdiko andienen atal-bidun atea burdiñezko morraillu bataz itxiten dala, beste txikerrago biak alboetan dauke sarrerea. Olango aletegiak lareun urterik onantz ez ei dira eregiten, galdu dalako Bizkaian antxiñakoa zan ekandu au. Etxaguntza onen izena dala ta eztala zerbait esango neuskizu, baia orretan ezkaitezcan geratu oindiñokarren naikoa biderik egin bear dogu-ta. Aurrenengo, itaune bat egin bear deutsut. Ibar eder au ta baserri ain zoragarria bein ikusten dauanak eta bertoko ipar-axe biguna arnasan artu izan dauanak baderitxazu nai izan daikela besterik eta aztu leitela baratz zorionekoa dirudien lur atsegingarriokaz? Ai! Eldu ezpada arako Euskalerriko mendietan aldatzak baiño besterik ez dakusenen seme gixaxo errukarrien zorakerira, ez beintzat. Zorionekoak A...-goieneko iturrian iaio ten dan latsak legez euskalerrian iaio, asi ta ilteko zoriontasuna euki darenak! Zorixardunak erbeste biotz gogordunean atsegiña aurkituko euelakoan, iaio terriko baso ta mendi solo ta baratz, intxaur eta keriza, lats eta ibai, artotza ta garitza, eta batez bere itxas-basterrik onena itxita erdelerri ta Ameriketako lur arrotzetara doazanak! Zeinbateg atsegin da poz eta ondasunen ordez idoroten dauezan atsekabea, biotzeko samintasuna, eta negargarritasuna, sotinka dagozala gero, ostera lenengoz argia ikasi euen lur dontsuetara itzuli-gureaz.

II. ETXAGUNTZAKO LAGUNEN BARRIA

Emen izenta dautsudazan ezaupideakaz etxatzula aztuko deritxat A... basterra zein eta zelangoa dan; gaurko egunean barriz edonon bizi arren beingo baten suzko burdioen indarrez bertoratuko zara gura dozun era guztian, burdin-bidea bertoraño daukazun ezkerro. Baia antxiñako iazoeak iragarteko ezta naikoa keia darioela ariñeketan ibiltea: agaitik, gogoaz baiño izan ez arren bere, etxe barrura sartu gaitezcan eta izan leite egotea bertan nor edo nor gure gurariak bete leizana. Iakin eizu ba nortzuk bizi direan bizitexe zorioneko onetan. Guztien buru dan agure ain itzal andikoa eta etxeko danak beren esana egin daroen aitaita gurgarria Txomin A...-koaren izenaz ezagutua da inguru-mari askotan, eta eun da geiago urte sorbaldan eroan arren, oiñdiñok arren burua argia dauko eta igarten iako bizkaitar entzute andikoa izan dala. Onen seme Ioane, Aitarren laguna egikera andietan izan zana, aspaldian Berriztar Elizondoko etxaguntzako alaba Maintonigaz ezkondata bizi da eta biok senar-emazte zorioneko batzuk legez urte asko igaro dabez, Iainkoaren onestasunak eurakanatuten dabezala. Gazterik il iakezan angerutxuak Iaunaren aurrean eurakaiti eskatuten dagoz zeru zabaletan guraso ta senideari iarleku eder bana gertu ta apainduten: eta etxean geldituten iakez oindiñokarren ibar onetako mutilik galantena ta indartsuena izango dana dirudienez, eta neskatxarrik ederrena ta onena. Inguruetako neskatxa guztien begiak eta biotzak beraganatuten ebazan A...-ko Ioane ta Maintonen semeak; eta etzan iaiegunetan Txomin agure agurgarrien loba baizen neskatilla eder, biotz-bera, otzan eta batez bere elizkizunetarako ta guraso ta zarragoakanako itzal eta lotsa ona eukanik. Matxin, ara emen beren izena, Matxin ain indartsua ta morrosko bulardetsua izan arren, guraso ta zarragoen, ume ta abadeen da alan bearrik itzaltasuna ta lotsa ona zor iaken guztien aurrean bildots otzan bat zan; baia edozein gorabera igaroteko burdiñazko biotza eukala zirudian. Beraz Jaungoikoak berarizko eran gauza goratuetarako egiña zala ziñoenak igarri eutsen, iazoeak euren eretxia sendatuten etorri zirean ezkerro. Billela barriz, au zan alabearen izena, Billela lurrean gitxilakoa zan, gurasoen atsegiña ta Iaungoikoak berentzat aututa daukazan arima zorionekoak onoidade ta onbidea-



ren usain gozoa erbeste negargarri onetan zabalduen dabenetariko bat. Esakuneak egitiak direala esan daroagu; baia oraingoan guzurpetuta gera-tu da arako zarrai askotan entzun izango zeutsena: «Aritx bakarra ta alaba bakarra, ugazaba ta amaren negarra». Alan iazo oi da askotan, azaiera ona larregi gureaz emoten etxakolako bakarra danean, baia eztauko esakera onek A...-ko alaba azaiera obeenekoagaz zer-ikusirik. Ezaututen doguzan ezkerro etxeokak, atea io ta olez egiñik sartu gaitezaz barrura euren autua entzuteko.

III. AITAITAREN AUTUA

Urte onetako Gabon-iaietan Txomin zarrak etxeko danak batuta egozala, esan eutsan Ioane beren semeari aspalditxu esangurea eukana agiri iakola eta semeak bere aztuta etzerabilela.

—Ioane, bakik orain gizaldi-erdi laster dala zer eskiñi euntsan Iau-nari?

—Bai, Aita, Iaungoikoari ta zeuri opariko gogoan ondo iosita daukat, eta ikusi dozu ondo bete dodanez.

—Bai, Iauari eskerrak eugazkoa ondo bete dok, enaioan besterik itxauten igandik; agaitik beti ezautu aut seme zintzotzat. Baia, ez ete dok-ba onezkero eldu ene loba laztan eta ire seme Matxin galantagazkoa bete-teko aldia bere?

—Aurten daukaz neuk orduan neukazan urteak, eta eroana etorrenean geiago luzetu ta atzeratu barik egiteko asmoa neukan.

—Bai, Ioane, ainbat lasterren obeto; atsegin au eroan gura naiauke bizitza onetarik bestera, eta orren belaunik belau iraungo al iok gure ondorengoetan eskeintzari onek, bear-izanak iirauan artean. Ondo dakik zeinbat ondasun ekarri iauskuazan eskiñi au beteteak Iaungoikoagandik. Bai, alantxe aginduta iaukok arako ik dakian beren otsein done andiak. Barriz orduan egiñiko eskiñi au bete etxeuen asko ikusi ioadaz gatxpean, eta euren etxe-baster eta artu-emonak beti ibilli iakoezak itzulastuta.

Egun gitxi barru dogu Doniane Barrion emoillean eguna, Berrizko elizaren zaindaria; ta ango senideai ikustaldi bat egiñaz batera aituko dogu egikizun oni buru ona emotean bere.

Mainton, dei egin eutsan aitagarrebak beren erranari, Mainton, Matxin emen balego ba...

Matxin, gaztea zan da, luze-erexirik ango egonaldiari, ioan zan zugazti-aldeko landara, ta antxe beren lagun kutun batzukaz burdiñ-agatxu bat ieurtika ebillen indarrak neurtu gurarik.

Matxiin, Maaatxin, gedarrez abia zan Ama.

—Banoa, erantzuten eutsan semeak; baia eragoion beren zeregiñari aziriko auzia ebatsi arte ioateko asmo бага. Amari amaitu iakon eroape-na ainbeste itxaute ta deadar alperreko egiñaz.

—Gazteak umeak eneak! Nori eragingo ez deutse umeok buruko miña? Ba! ondiñokarren uren ganeko bitzean zago!



Amak aĩn zoli miña erabillen bitartean, Billela, neuk ekarrikot esanda, beingo baten nebea beren adiskide lagunakaz iostaketan egoan landara ioan zan, agertu eutsan itz bitan Amaren asarrea ta aitaiten guraria. Naiko izango zan arrebearen deia, baia añ bearra zala iakitean etxeratutea, bertan bera auzia itxi ta gero-arte esanaz lau oiñkadan gurasoai otzantzozan da arnasa-estuka aurkeztu iaken.

Non egon az? zetan eragoian? Nogaz batu az?

Noz ikasiko dok gurasoen deira, beingoan etorten? Itaune onek erabatera egin eutsazan amak, baia aitaitan esan bataz eta lobeen erantzuerak bakarraz ibitu ta apaldu zan asarre guztia.

Masustegiko Batxi ta Mitxel da irurok zugazti barreneko zelaian giñarduan burdiñaga-urtika, gero elizperatuteko ustez.

Batxi ta Mitxelen izena aitutean Maittonen arpegia argitu zan, Masustegiko ta A...-tarrak alkar asko maite izan eroielako, batez bere ango oiñordekoari suiña deituteko ustea buruan sortu iakonetik.

Ea! iarri aurki onetan eta entzun, esan eutsan semeari Ioanek. Biar goizean Berrizera ioan bear ioguk, Gabon-zar ango senideakaz iragoteko. Zelan iagozak beorra ta zaldia?

—Ondo ezita daukat zaldia; goizean bere ariñeketa baten ioan-etorria egin dot Atelaraño. Au izango da zaldia! Onen bizkorra ta ariña! Beorra barriz iñozko obetoen dago edonorako.

—Bai iakiat euk bere ibillgurea daukoala; onerako izango al dok.

Txomin zarrak beren ondora urreratu eragin eutsan eta eskumia sorbaldan ezarrita esan eutsan lobeari alantxe: «Matxin laztana: amaika bider entzun izan deustak neure gaztetasunean egiñiko eskeiña, belaunik belaun etxaguntza onetakoak egingo iauena asaben odol garbia euren sanetan iabillen artean, gauzen gora-berak besteren bat eskatuten ezpaiauek. Etorri iak iri bere gurasoen oiñatzai iarraituteko epea; geuk legez bakea ta zoriona ta izen-ona iadietsi gura badok ez eik geuk izentari bideetatik alde egin eta ekarriko dok Iaungoikoaren onetsia; eure buru ta egikeretara. Osterantzean Iaunaren asarezko urioletan ondatuko iak biotza, eta mingoztuko iazak bizitzako egun guztiak: zerutik iñontz gozoen orde, tximistak eta arriak ieurtingo iozak ire basterretara eta eugan beteko dok berak esanik iaukoana zuzentasunaren iarraillak goratu ta deungak negargarritasunean itsiko ioazala. Gatzok eugandik eta ondorengo danetarik igez beioazak urrin, eta ixuri deitoala osasuna, ondasuna ta ontasuna».

Taupadaka eukan Matxinek biotza eta aitaita nekatuten zala ekuselako, txar-aldiren batek artu ez eian bildurrez, tiratu eutsan besotik zerbait

esan gura baleutsa legetxe. Aitaita, zirautsan, etzaita nekatu, aituten dot zer esan gura deustazun. Barriz badakizu aginduten deustazuen guztia egiteko gertu nagoala. Eta bein agindua ez beteteko ementxe izan bear A...-tarren semea.

—Ondo iagok: Aitak iragarriko dena beste guztia, ezer ulertu barik baeunka. Baiakiat ire zanetan irakiten daukoan odolak deadar egiten deuala; baia areriorik asko iagozak Euskalerra ostean, nortzukaz aspertu odolaren bultzakadak, berton bear-izanik etxagoan artean.

Au esanaz, mosu laztan bat emon eutsan, beren gogaketa danak iratsi gura izan baleutsazan legez eta edari apur bat emonda: —«Ea bada orain elizaratu, elizkizunak amaitu eta biarko gauzak maniateko», esan eutsan.

Egun batzuetarako aldenduko iakela Matxinek Batxiri ta Mitxeli esan eutsenean, illundu iakezan onei biotzak adiskide ta lagunaren ioan bearraz, laster iruliko zala iakitean, pizkat arindu baiakoen bere euren samintasuna.

Lo gitxi egin euan arrats atan, amesetan igaro euan gaurik geiena: aitaiten autua entzuten egoala uste euan.



IV. AITA-SEMEAK BIDEAN IKUSI TA ESANIKOA

Biaramon goizean goiz iagi-ta Matxin zaldi beorrakana ioiala:

—Egun on, esan eutsan otseiñak: bada goizaldean etorri zan gura-soen etxetik Gabonetan Urtebarri egunerarteko baimenaz aldendu bazan bere, aurreko egunean zabaldu zalako Elizondoan goiz atan urteten ebal, eta agaitik otsein zintzoa artega egoan ugazaba ta zaldunari maniatu ta gertu arte ioapide atarako bear euen dana.

—Zelango egualdia dogu?

—Lein apur bat egin dau, Iauna, baia egualdi ona dator eta bideak bere giro ederrean billatuko dozuez.

Ostaz urten euan Bizkargi txuntxurretik eguzkiak eta bitarteko mendi-gaillurrak iragorik zirargi bigunak zabalduen asi ziran A...-ko bazterretan zear, ta Matxin gosalduta biderako lain gorde ta zaldi ganean aitari begira itxaroten egoan. Ama atartean ta aitaita leioan egozala, aita beor ganean otseiñak eskutik ekarrela beingoan agertu zan.

«Arduraz ibilli gero, Matxintxu; iausi ez aiten», bost edo sei bider esan eutsan amak. Agur gozoak alkarganaturik, bizkor zaldi baltzizkearen ganean aurreratu zan semea aita oinkada bardiñean bear izpildunean ioiala. A...-tarren begi guztiak ikusi ta begiztau al euezan artean euretan ezarrita egozan, ariketa elizaldeko mendi barrenean ostendu zirean arte. Euren atzetik eliz-buruzapiaz ioiana Billela Maitonen alaba iainkotia zan. Aita-semeak eroien arazoagaitik Iaunari ta Andra Mariari biotzez arren egitarren elizara mezea entzutera eta egotaldi bat egitera ekandu eban ez ioiana. Alaba ain Iainkotiarraren ardurapean A...-tarrak itxiten doguzala, baia barriro ereak aginduten deuskunean biurtutekoan, goazan Ioane ta Matxin aita-semeen atzean, euren gogamen eta izketak ezagutu al bado-guz, arean beintzat ikasiko dogulakoan nago-ta.

Azikeran zaldi ta zalduna bein lauoiñean, gero tiki-taka lantzean bein aurreratu, geroago urreratu aitagana, irago euan bide zati bat, eta orduan alkartu ziran aita-semeak, eta guk ordutixek euren atzean isil-ostuka darraikoegu. Alango baten baserri batetik atxiña igarotean dakusguz astiro-astiro doazala begiak odeietara irulirik bein arrantz, bein onantz, gero gorantz eta berantz darabillez. Zeri adi ete dagoz? Matxiñek oraintxe

etxeko eskopetea eukitearren edozer emongo leuke. Au gogartean erabil-len artean, begira egozan miru-tzarra zasztada baten ieurtin zan baratz ertzean txita artera, edo obeto esatearren burruka ebilzan erdi ollazko bigana, ta bata zauriz beterik dana iratzirik itxi ta bestea erpe artean ero-ala bazkalduten Oiz aldeko atxarte batera egaz egin euan. Aspaldian ameak deadar egiten eutsen miruen geriza edo usaiña igarri euanen, ollo-ak euki daroan ardura zoliaz; baia ollazkotxuak batak aoan eukan arra kendu eutsalako eta besteak berentzat amek emona zalako ta au ta orl ta besteagaitik asarre gorrian ama larrituaren esanai iaramonik egin barik alkar manatu ta odolduten eragoioen bein bitartean, areriorik andienak auzia ebazten lagundu eutsen ikusi dogun negargarrizko eran. Udako egun eder baten sarri askotan ikusten da beingoan zeru urdiña goibeldu-tea, laiño baltzak egunargia illundutea, eta ara-ona asi ta azkenean, odeiak burruka gogorrian gogor ekiñik, asten dira tximista eta arri-urtika eta baserriar ardura gitxidunak alperkeriaz batu barik soloan daukezan ete-kiñak beingo baten galdutea. Ezta erraz azalduten Matxinek miruari artu eutsan gorrotoa: beraz erabagi euan al euazan guztiak iltea atzera biurtu leitenean; eta erabatera ezautu eban zein gatx gogorrak io euazan oillaz-kotsu biak burruka alkar odolduten ibilli zirealako amearen dei ta esanak aukeztu-ta.

—Urrean agiri zan errira laster elduteko egozala ikusi ebezan mutil aldra batzuk, baia urriñetik zeri ekioen ondo eziñ igarri ebelako iostake-tan edo ebilzala uste euen. Gero aurkez aurke egozanean aitu eben zetan ebiltzazan. Gauza negargarria! Erri bateko semeak, auzo batzuk besteai arrika amorru bizian ebilzan umekeri bategaiti: Araso ain bidebakoetan iñarduela ikustean, zelan agiraka mutillai egin barik bideari iarraitu? «Geratuko zare, ala guztiak gilzpean sartu zaiezala aginduko ioagu? Begien bat aterateko be!... Iratsi daiguzan euroen izenak, zor iaken aloge-ra emoteko».

—Bidaztien agirakea entzutean iges egin eben mutil danak ortik emendik ara ta ona, txoritalda batek gari arlo batetik arria iaurtitean iges egin daroanez. Arrikalarien igezari begira ioiazan bitartean eldu ziran Andrandegiko etxaguntzara ta ango Iaunak leiotik deadar egin eutsan:

—Kaixio, Ioane; egun on, adiskidea.

—Egun on, erantzun eutsan Matxiñen aitak.

—Zeregiñen batek garoaz orrantz e?

—Gabon zar Berrizko senideakaz iragotearren ba.

—Urte askotan izango al da.

—Eskerrik asko.



—Semea dozu zaldun argi ori?

—Bai ba, Iainkoak emona.

—Aitaiten antz andia artuten deusat. Beren egikarai iarraitutekotan-ba, baukagu Bizkaian gizon on bat.

Biurtu zan atzera Matxin aitak ez iarraikola ekusalako ta izketa aldaturaren adiskideari itandu eutsan Ioanek: eztago inor erri onetan mutil koskor orrei lotsa apur bat eta zigorkada batzuk emoteko?

—Isilik zagoz, buruko miña egiten deuste aspaldion, mutil zorrok. Eztakit nik zelan oraindiño bizirik dagozan, ala euren etxean sarta ta garrastarik ez ete dagoan. Gaur alkar buru-austen; urrengoan auzoko arrikoakaz biderdi urten da. Au alan badoa, ondiñokarren ikusiko doguz barriro biztuten direala ainbeste negargarri ekarri euskuezan Oñaz da Ganboatarren aserrakuntza gogorrek galtzaidu ertzakaz erriko semeen odola uriolaka ixuriten dala. Biar meza ostean erri-batzarra daukagu ta garratz itz egiteko asmoa daukat erriko buru direanak neurri egoki ta berarizkoak artu daiezan izurri au aldenduteko.

Bai erriko buru direanak eta gurasoak dauke olangoetan errurik geiena. Egin beiez bolatoki, pelota-leku ta enpaduak umeen eta mutilen atsegingarritzat, eta berez galerazoten dira beste zorakeriok. Agur ba, adiskidea, urrengo arte.

—Kopu bat ez al dozue gura?

—Eskerrik asko, aldean daroagu-ta.

—Agur Ioane.

—Agur.

V. OÑAZ ETA GANBOATARREN BURRUKALDIK

Laster asi zirean Aita semeak autuan. Ikusi ebezan ikusketak sendo euren irudimenak ikutu ebazalako, euretatik azatza artu euan Aitak.

—Uste ioat, Matxin, Iaungoikoaren begirakuneak ikusmenok ipiñi ioazala geure begien aurrean.

—Zer aituerazo gura ete deusku ba, Aita?

—Garaioazan arazoa ontzat iaukoala iragartearren edo.

—Nok daki ori? Nik beintzat eztakit zelan izan leitenik.

—Entzuidak eta aituko dok. Ikusi dozak arako alkar odolduten ibilli doazan oillazkotxu biak, amearen garrasi ta alarauai iaramonik egin barik?

—Baita miruak zelan zatzada baten biak galdu deuzan bere, bata zaurituta ezetarako eztala itxita, bestea bazkaitako eroanik erpe triskatzailletan.

—Bada oraindiño obeto ezagututeko, erri ondoan erakutsi ieuskuk orren azalmena doan beste irudi negargarri bat.

—Zein, mutillen arrikoa ala?

—Bai, orixe: erri bateko ta Ama baten umeak alkar buruausten ibiltea. Ori doala uste ioek Ama Bizkaiaren esanak eta Iaunaren aginduak irakatsi iaroena?

—Zure adiskideak bere Oñaz eta Ganboatarren asarretasunak etorriko ete direan bildur izan da.

—Ai ene Matxin, izen oen aldekoak oraiñarte txakur eta katuk baiño eziñ ikusi andiagoa ieuken. Orain Iaunaren eskerrez batzanduta iaukaguzak, eta arren Bizkaiaren onerako izango al dok.

—Neuk bere sarritan entzun dodaz alkarren areriotasun orretarik etorten zirean gatxak; eneunkez sinistuko begiakaz ikusi eta eskuakaz ikutu euezanak ezpaliñoez.

Areriotasun orrek sarratu bear ioguzak lurtean gizonen arrokeri ta zitalkeriak sortuerazo ieuazanetarik gorrotogarrienen erreskadan. Eurok ondatu ta galdu iauezak etxadiak, auzotegiak, erriak eta lurbirak.

—Aita, ba nik entzun dot Italiari Guelpotar eta Kibelitarren burruka gogorrek ekarri eutsezan zoritxarrak, eta Agramondar eta Beamonda-



rren gorroto odoltsuak Naparroan, eta alan nai Erdal-erri nai edozelango tokialde askotan luzaro iraun dauezan gorrotoen itzulasmene eta gatzak bardinbakoak izan direala.

—Ziurtzat euki eik, Matxin, etxaukoala Euskalerrriak eta arean bere Bizkaialdeak zeri negar gitxiago egin Oñaz eta Ganboatarren areriotasun gordiñakaitik. Begitandu eik erbestetar eta arrotz odolgiroak su ta gar orko mendietarik eta itxasoz sarturik etxe ta bazterrak lurreratu ta zapalduten iaragoiela ta odola edangureak amurrututa iagoazala. Oraindiñokorren kaltetsuagoak izan dozak emengo goiberatasunen ondorengo mintsuak, bertako semeak beti itzulastu ta ondatu izan ioazalako, negar-sotin alatsuakaz deadarka ta zarataka iegoan Ama Bizkaiari begi ezelakaz begiratuten ieutsela. Etzoan iñor bizi bakean: Aita-semeak alkarren bildur zoazan, anaiak gorrotoz, arrotzak balitzozan legetxe, alkar ilten ieuen, odola edangureaz. Bazterrak eta etxeak iaube barik agiri zoazan edo otuten iakoanarenak zoazan. Erabatera esatearren, gatz eta izuririk txarrena doan erritarren barrutiko guda luzearen atze garratzak eta samiñak irunsten iegoazan.

—Ezin aitu dot Aitak beren semeak eta onek euren gurasoak gorrotatu leizanik. Benetan izurri gogorra zan ori ainbesterañño euskaldunen biotzak ustelduten euazan ezker. Non egozan bada Bizkaiko Batzarreko gurasoak? Nora adi egozan euren zentzunak?

—A zoan ba zorigaldua Euskalerrriko edozein tokitan Ganboatarren batek Oñaztarrari esetsi ta kalte egitea naikoa ta lar zoan erri guztiak dundurika iagiteko beste aldetarrai esesten eta kaltetuten. Eta lotsagarriagoa dok erdalerrietako goraberakaitik bere euskaldunak burruka asten zoazala iakitea. Peru Gaztelako erregea Beren anai Endrikegaz asarratuta gudaraten dozak, eta Ganboatarrak oneri Belasko agintariagaz lagunduten ieutzelako Oñaztarrak aren alde urteten ieuek. Gizon griña ta lera zantarrak ondo ezi ta bezau barikoak iagoazanean, itsuak dozak, eta euren gurari zitalak aspertutearren edozein trokatzara burua bota eragingo laieuek.

—Baia, ezegoan iñor gatz orri osagarririk iminteko? Zetarako zirean ba orduan Bizkaiko Iaunak, emengo besoak erdalerrira euren alde laneginerazoten eroateko, ala geure lauzirikoakaz arrotzen Erregen iauregietan ibilteko?

Ioanek semea ixetuten zala ezaututean, poztuten bazan bere ain gogo ederrak ostatu gozoa aurkituten ebelako beren biotzean, egia zuzitatz imintearren erantzun eutsan:

—Bermeon gordetan dok Ona ieritxon Iaunen artean XVIII-na zoan Mari lenengoak 1329-an emoniko agindua Anaitasuna ieritxon batzarren buruak errudun idoroten ieuezan burrukalarri guztiak ilteko.

—Eta, etzeuen arean iadietsi?

—Ai! osakai ariña zoan ori gatz ain gogorarentzat, eta gogorraz ostein iraunkorra zoarentzat. Oraindiño bide egokiagoak artu ioazan gure gatzai sustraiak ebagiteko Erike miñtsua ieritxoan Bizkaiko 26-garren Iaunak, eta guztiz sendoagoak eta eraldi askotan, batez bere 1439 eta 1449-an Ioane Bizkaiko izenez laugarren da 27-garren Iaunak. Baia bedar txarrak, susterrak lurpean itxi ezker, laster urteten ieuen eran, gorrotoaren eta ikusieziñen susterrak gizonen griña txarrak asipena ta indarrak emonaz landara barriak botaten ieuezan.

—Aita, orduan geure Iauntzat geunkezanak Gaztelako Erregeak zirean da, emengo kalteak urriñetik begiratuko euezan; agaitik biztuko zirean gatz galgarriok.

—*Al-bagea* ez-izentzat ieukoan Erike bigarren 28-garren Iaunak 1457-an Gipuzkoan lenengo eta gero Bizkaian okerkerien buru zoazanai zigorkada batzuk emonik, eta erbestetuaz gorabera ta itzulasmene asia ereiten aurrengo zoazanak, danok uste izango laieuek geldituko zoazala atralaka ta burruka garratzak. Bai zera! Urte atantxe Iauna Eguerdialdeko zeregiñak aldendu ioanean, barrero emengo zaldun batzuk asi zoazan gauzak eragin eta nastaten, euren azartasuna eta griña ezibakoai eutsiteko agintarien itzaltasuna ta agirakea gitxi zoalako.

—Nortzuk zirean-ba aiñ lotsabakoak eta eragiñak?

—Ez eunke orain siñistuko, gaur iagoazan eran gauzak ikusita, lenago bestera iazoten zoanik. Ioane Muxikatarra zoan Bizkaian Oñaztarren buru, ta Abendañotar Peru Ganboatarraren. Asarratu zoazan bein Zaldibar ta Berrizkoak iekarren auzien bategaiti, Ioanek arei eta Peruk onei lagunduten iotsela Elorrio ondoan eukiriko gudan, eta alde bietarik asko illik geratu zoazan. Onak zoazan emengo gudarik geienen buru, eta euren izenak gorrotogarriak izango litzokezak, geroago Bizkaiaren alde egiñiko egite gomutagarrietan zurutu ta garbitu ezipalaieuezan.

—Dakustanez eraldi luzean euskalerrietako gizonik altsuenak ta odolik onenetakoak, onetan obedunagorik izenta al baleite, burrukan da odol-izuriten ebilzan euren bulardetasun eta ondasunak asarre ta okerkerietan galduten, erriak eta etxeak ondatuten, euren biziak beti eriotzurrean eukezala. Aitaitak ondo iosita dauko-ba aldekortasun onen gorrotoa. Zeinbat bidar gogaituteko aiñan aitatu deust Bizkaiarren odola Bizkaiari ta Iaungoikoari zor iakola, eta eurakaitik bakarrik emon bear dala,



eta ez gizonen arrokeri ta amurruen uste-zoro ta amesak bete eragitarren. Ezin esan daiket zeinbat poztuten nazan Aitaitak errime ziurtuten eustana iakiteaz:

«Eztot izuri inoren odolik Bizkaia gordeteko izan ezik, eta bera zaindutearren ene zanetako odola arerioenaz nastau izan dot».

Baia arriturik nauko geure Aitaitak, dakigunez ain entzute andikoa izanik beren egikerakaiti, zelan iges egin al euan izurri ta gatx kaltegarrien kiratsetik, arnasan bere ez artuteko.

—Ori gero azalduko deuat, gaiaroazan arazozen sustraia dok-eta.

**Ara emen irazpen-neurtu baten
Ganboatar eta Oñaztarrakaiti
zer esaten dan:**

Begira zelan trisketan dauan
Oñaztarriak zugatza,
Ondo ezea ta adar mardoak
Biurtuten dauz kedarra:
Oñaztarren da Ganboatarren
Alkarregazko burruka
Alan izan zan Euskaldunentzat
Onera danen galmena.

Izurri gogor goseakillak
Urian sartzen danean
Gosea asetu baiño lenago
Etxe ta iauregietan
Agure zarrak gazteak legez
Irausten dauzan erean
Ikusi-ezin ta gorroto onek
Bizkaia ondatu euan.

Aize gogorak orroa itzalez
Mendi barrenak beterik
Ateraten dauz tantai mardo ta
Zugatz lodiak sustraitik:

Alantxe aize amurrudunok
Etxaguntzak be brintzaurik
Io ta lurrera bota euazan,
Bageunkazanak zutunik.

Edo itxasoan astinduten dauz,
Uin leiarrezko mendiak
Dirudienak, irargiraiño
Ta galduten dauz unziaik
Beren azpian zapaldutean;
Asarrezko uin bitzdunak
Alan iaustean geure Bizkaira
Ondatu euzan buruak.



VI. AITA-SEMEEN BERRIZ-BIDEKO AUTUA

Orain uri eder onetan sartuten gozan ezkeru, gaioazan arako agiri doan ostatura. Tronperri bere baderitxok lengo gizaldiaren erditik, baia ez eiolek bertokori itandu nondik iatorkoan izen ori. Batez bere andrazkoak amorruez itxetuten dozak eta lotsabakerien bat erantzuten iauek. Osterantzean arpegi argi ta biotz onekoak eta lagun zintzoak dozak uritarrok, eta Bizkaiko aran edo ibar galantenetariko bat iauek.

Au esanaz iatzi zirean Aita-semeak zaldi ta beorraren ganetik eta leio burdiñean estu euezan ugela eta oies egiñik barruan sartu zirean.

—Kaixio Ioane, esan eutsan txakolintegiko iaubeak, egun on.

—Kaixio Oribe, ondo zagoze?

—Gu langoak iaiegunetan ondoen, bezeroak ikusigurrez beti gagozda. Peru, Perutxu, deadar egin eutsan beren semetxuari; sartu eizak atarteko zaldiak kortan eta iaten emon.

Peru txakolintegiko semeak kortara eroazala, Matxinek lagundu eutsan zelan geratuten zirean ikusteko. Emon eutsan zaldunak eskupeko saritxu bat, eta orixegaitik guztiz ondo ianaritu euazan A...-ko zaldiak. Oribe gazteak artu eutsan Matxiñi zaletasun andia eta bear bada geroago euki izan geinke beren barri iakiteko erea. Guk iarraikoegun Urango atzean itxita Kurutzeagaitik atxina doazan Ioane ta semeari, euren autua entzun daigun arean bere galdu barik, len asita itxi euana amaituko euala semeari agindu eutsan ezkeru.

—Aita, gomutau eutsan Matxinek, enekiala niñotzun zelan batuten etzan gure Aitaita, ain entzute andikoa izanik Oñaz eta Ganboatarren goraberetan.

—Orretara naioak. Ioane laugarren Bizkaiko 27 garren Iaun eta Gaztelako erregeak, zorigatx onek azkendu gureaz artu ioan asmobide eder bat, eta lurreko era-bideak onerarik etxakarrelako zerukoetara begiak itzuli ioazan, eta atarako Elizako Nagusiari eskatu iotxiastian laguntasunak. Aldi atan iegoan Espaiñatar gizon bat, gizona bazoan eta ez zerutik iatzi-rikoen bat, Balentziko uriak beren semetzat ieuoana. Txomin donearen soiñekoa iauzten ieuana eta erririk erri ta uririk uri lagun batzuk beragaz ieroazala Espaiña, Ingalaterra, Eskozia, Piamonte, Lombardia ta beste

erdal-erri asko irago ioazan inguru-mari danetan ikuskari arrigarriakaz arimen onera galantak egiten ioazala. Espaiñan bakarrik Iesusen siniste donera ekarri ioazan orduan lur orretan bizi zoazan 25.000 iudegu ta 18.000 mauru baiño geiago. Iaungoikoak gogargituten ei ieutsan gizonik gogorren biotzak bigunduteko berarizkoena zoana.

—Neuk bere badakit ori nor zan. Aitaitak bein baiño geiagotan iragarri deustaz orren egikera ikusgarriak. Ez egoala esaten eustan berak errietatik, iges eragiten ez euan oben eta txarkeririk. Gizonak eta erriak alkarganako gorroto ta ikusieziñik gordiñenak itxita bigundu ta adiskidututen ei euazan beren itzaldi ta egikera iainkozkoakaz. Beren irakaste goratuen argiaz eta beren bizibide arrigariaren berotasun gartsuaz lurreko gizon guztiai argi egiten eta euren biotzak Iaunaren maitetasunean ixetuten etorren eguzki barria zala ziñoan. Diabruak bere aren bildur zireala-ta, David Igarleak gaztetan artz eta legoiai eskuakaz ardi ta bildotzak agiñ artetik matraille-azurrak apurtuaz kenduten eutsezan legez, onek bere sulexetar txarrenai erpe gogorretarik eta eztarri zabaletik ateraten eutsezala Iesusen artaldeko ardi gaxo erdi-iruntsirik eukazanak. Ara geiagoeu esan eustan, Iesusek, argitasunez beterik agertu iakon baten, agindu eutsala zabaldu eiala beren Barriona bazter danetan, eta bekokian ukutuaz iakituria ta gizonak bide zuzenera ekarteko eskubide altsua iratsi eutsala.

—Eta, zer uste dok, ordu bateko bidea balaiegok bitartean entzungo eunke iztunen aotsa itzerditxu galda barik Iaungoikoak atarako lagundu ezik?

—Esta erraz, ori ikuskari arrigarria litzate.

—Ba oni urrin iegoazanak urrekoak legetxe entzuten iotxeen enparantzan eta zelaietan, eziñ esan ala lagunteri batuten zoazanean entzuteko gose ta egarriaz.

—Aita, bada ni geiago arrituten nau beragaz Euskalerrian iazoten zanak. Aitaitak ziñoan Balentziako izkuntzan itzegiten ebalta, ta baserritar euskera utsa baiño ezekienak bere ondo ezertxu bere galdu barik dan-dana aituten eutsela eta nongoa zan ezekienak euskaldunik onentzat artuten euala.

—Badakik beren izena?

—Perrer donea, deituten eutsan Aitaitak.

—Bai, Bizenti Perrertar donea, aiko or Ioane laugarrenak Euskalerriko areriotasunak kenduteko bialdu ieuana eta gure etxera bakea ta zoriona ekarri ieuana. Mondragoiko Elizan itzezin ieuaneko zabaldu zonan Bizkai aldean urrengo egunen baten Berrizko Elizatean bizkaitarren alkarganako areriotasunak erbesteratuteko itzegingo ieuala. Entzuteaz



bakarrak eta Iaunaren errukiak bultz egiñik batu zoazan antxe alde bieta-ko agintari andienak eta aldekor geienak. Eldu zoan egun zorionsua ta Bizenti donea kurutze bat eskuetan ieroala agertu zoan. Guztiak ezarri iueuzan beragan begiak, eta kurutze aren oiñetan belaunikoturik arren egiten iegoala, begitandu iakoen zerutik angeruak iatzi ta Perrerr donearen buru inguruan gazte eder biren antzaz iegoazala, eskuetan suzko aiotzak ierabillezala. Igon ioan Berriz etxe-buruak aldamenen iukan iargoi-irudiko batera, eta andixek onduten ezoazanai egin iotxiazan agiraka eta zemai itzal eta bildurgarriakaz Iaungoikoaren alde, eta bein Iaungoikoagana biurturik asarreak alde batera botarik adiskideten zoazanai eskini ieutxezan onera ta zeruko sari ugariakaz, bigundu zoazan biotzik gogorenak, belan alkar lastanduten zoazala len odola edangurarik ibilten zoazan edozein atxakiagaitik. Azkenean eskuetan artu ioan kurtzea eta guztiai belaubikoturik iegozala eskatu ieutxan Bizenti doneak eskiñi eiola Iaungoiko ta gizon egiazko Iesus kurtzean iosiari, egundo iñoren odolik ez isuriteko Euskalerrriaren eta Iaungoikoaren Eliza ta agindu doneak iagotearren izan ezik. Guztiak erabatera baietza emonaz eskiñi euen. Gero egin ioan egun atan sorturiko bake ta adiskidetasuna gordetako bearra edo beintzat berarizkoa zoala iñoan beste eskari bat esanaz: «Zeuek agindu au beteaz ostean, zeuen belaubekoai bere bardin al dozuen eran eragiten badeutsazue, biziko zare zeruko eskarrez beterik zeuen lur-bazterrak onestuko dauz beren begirakune begirizailleaz eta ezta iñoz aldenduko euren etxeetarik zoriona».

Ire Aitaitak, gaztetxua zoala, Iaunari emon ieutsan beren itza, zintzo beteteko erabagi sendoaz. Eta Bizenti doneak eskini au zintzo zainduta-koan beren ondorengoan batek iaiotherri ta odola goratuko ieuala igarri ieutsalako, neugaz orixe berbera egin ioan aldía etorri zoanean eta igaz neuk bere beste arenbeste egiteko ardura andiaz beti egon izan dok. Eta aiko emen, Matxin, Berrizera gaiakarzan arazorik aurrenengo.

—Baita pozik egingo dot nik ori neure aurrekoai iarraitutearren, eta ene odola bear bada Bizkaiaren goratasunerako edo Iaungoikoaren ize-naren goraldirako, oraindixe opaten deusat neure Egilleari.

VII. BERRIZKO EGIÑENA

Biaramon goizean Ioane Barri ori emoilte donearen egunean lagun-teri andia batzandu zan Berrizera bertako Elizearen Zaindariaren iaia zala-ko. Etzan begirik geldituko erri aretakoa etzirudian gazte galantagan ezarri barik. Luzaro ikusi euen kurutze baten oiñetan belaubikoturik; gero euren etxeetan bakotzak burura etorkona esan euan zaldun orren egintzaz. Batzuk prailagaien bat zala, beste batzuk seniden baten biiziagaitik arren egiten egon zala, eta eztaikit zeinbat burutasun agertu etzeuen Berriztarrak bazkaldutean, barrua zerbait berotu ondoan batez bere. Guk bakigu zetan iñarduan eta eztaukagu burutasunen bear-izantik eta Gabonzar eta Urtebarri iragotakoan iarraituko deutsegu Aita-semeai euren etxaguntzara: bada albista txar bat eldu iake otsein baten bidez, Aitaita aiñ aguretuak lur erbeste neketsuan itxita betiko bizitzarako bidea artu gura ei euala.

Beste zeregiñik emen Berrizen eztaukagun ezkerre ta A...-tarrak barri mingarri onek ixilduta daukazalako, iakin gurako dozu Berrizen aitaturiko iazoera onen ezaupiderik ete dagon. Egikerarik ederrenak esan utsai itxiezketiño sarritan aorik ao doazan bitartean aldatu ta iruntsietaratuten dira; baia Berriztarrak antxina artu euezan erabide zuzenak eta iratsi eragin eben iazoera au irudi edo antz eder baten, eta irudi beronek Bizkaitarren eta batez bere Berriztarren, gomutatik alde egin ez eian, imini euen Eliz barruan tokirik gurgarrienean. Iñoz Eliz-ate onetara ioateko era bazeunke, barrura sartuten zareanean artu eikezu eskumatara, eta alde orretako altaran aurkituko dozu irudi gomutagarri ori. Begitu eikezu ta ikusiko dozu irudi orretan Iesus kurutzean iosiaren antza oiñetan belaubikoturik Txomin donearen soiñekodun bat. Itzuli eikezuz berton ingurumarian eta begiztauko dozu argi badago oraintsuarte Eliz ondoan zutunduten zan Iauregia eta bertatik erausten edo itz egiten dagoala lagunteri andi bateri kurutzepan dakutsuna, Oñaz eta Ganboatarrak direala igarten iakoela buruan dauken apaingarri ta estalkiaren eroakeran. Lotsagarria ta mingarria izango leiteke gomutagarria ain askoesalea ardurarik ezagaitik galdutea.

Antz irudiari begira-begira egon garean bitartean Aitasemeak autuan iarduteko gogo barik bideari emon eutsen eta etxaguntzara eldu zirean artegaturik, Aitaitaren gatx-aldiak txarragora ioko ete eban bildurarraren.



VIII. AITAITAREN ERIOTZA TA ENPADUAK

A...ko agure gurgarriak eun da ainbeste urte eukazan, eta zartzaroa bere izan badoa gaixotasuna, eztago esan bearrik Txomiñi zelango gatxak emon eutsan. Euskalerrietako arte eta aritxak zindo ta mardo urte luzee-tan irauten daue, baia eurai bere guenean barruko miña elduten iake ta ustelduten asten dira, lenago zindo-gogorak izanak ezetarako gauza ez dautsela. Txomin bere zugatz orren antzera gordin eta osasun onean urte gozo askotan iraun eban, baia eldu iakon *gureak egin dau* esateko unea. Alantxe udan sagar oriak adakietan dingilizka egotez gogaitu ta nekaturik iausten dira lurrera umau-usaiñ gozua darioela. Osagilleak geldi-geldi amaituaz ioiala, ta egun gitxirako bizia emoten eutsan. Matxin Aitagaz gaixoari ondoratu iakonean, iakiñik bete euazala beren gurariak, esan euan begiak goraturik:

—Iauna, ordua da onezkero zure iauregi aberatsetara ioan nadin beti zure arpegi ederra ikusi ta zure ontasun basterbagea maitetuten iardute-ko. Deitu eidazu zeugana erbeste negargarri onetarik geure erri zorion-dunera.

Itz onek ziñoazan al euan biotzeko indarrrik andienaz eta aurrera iarraituteko arnasa barik geratu zan. Etxekoak negarrakaz nastarik batu ebezan egun aretan emon eutsezan esanak. Ara emen euren ezaugarria: «Bizitza onari eriotza onak darraikola ta eriotza onari betiko zorionak. Agaitik aurrenengo lana lurrean Iaunaren aginduak gordetea zala».— Agindu eutsen gero ez eiela negarrrik egin beragaitik, lo apur baten ostean aragi arexekaz ostera batu bear zala eta bien bitartean arimea Egillearen esku aitaitietan atsegindutera ioala. Negar malkoen orde lagundu eioela Mezak atereaz eta Iaungoikoari ta Andra Mariari arren gartsuak beren alde egiñaz.

—Asti eta era onez artu ebazan Elizako guztiak, eta azkenengo uneriñio abadeak lagunduten eutsala Eliz-amaren onerakaz, A...-ko agure euskaldun maitegarriak emon eutsan Iaungoikoari Beren maitalari beti izan zan arima zorionekoa. Urrengo egunean senide, adiskide ta auzokoa-ak soiñeko baltzez iantzita lagundu eutsen gorpuari lurra emoteraiño eta elizkizunetara, eta mezak atarateko ipiñi eragin eutsezan abadeari euren

izenak paper baten bakotxak beren aukeran diru geiago edo gitxiago emonaz, guztien artean irureun baiño geiago ioten euela. Antxe ikusi leikean aspaldian erabagi zuzenez galazota dagon ikuskera bat. Ill baiño lenago ez eiela alakorik beragaz egin eskatu euan Txomin zanak, baia seniden batzuk etxekoen naiari iarkiten zireala ta euren asmuz antxinako ekandua zala-ta aurrera eroan eben.

Orretarako ekarri ebezan alogera ta bearsari ona izentauta Bermeo-tik inguruetakoko egokientzat ezaututen zirean andrazko batzuk. Onek euren zeregiña beteteko asi ziran negar-sotinka gorpuren atzetik eta ortusantu edo illerri doneko atarian, bein bakotxak eresten euezala Txomin zanaren egikera ta onerak, goratuten ebezan aren odol garbi ta aberastasunak eta enpaduak. Illeta asko eresi ei ziran egun atan, guk batu al izan bagenduzan guztiak emen imiñiko genduzan, baia besterik ezean bat edo beste gomutaten doguzanak iratsiko doguz; bada euren eresbidea Bizkaiko Elizetan Iesusen Nekaldiko eta eriotzako geraldietan oraindiño dantzugu.

Ebilzan zeru ta lurrak
Auzi baten atzean
Txomin maitea bakotxak
Beragandu gurean.

Eta besteak erantzuten eutsan goitu gura euala eresi gozo au:

Erabagi izan dalako
Zerutarren aldera,
Negar-anpuluz begiak
Orain urtuko dira.

Gero azten zan egikerak goratuten ziñoala:

Baekien erdeldunak
Nor zan Txomin Zalduna
Igezika ill etziranak
Emon euen bizkarra.

Txominek atera gaituz
Erdel-buztarripetik
Belasko Harok amorruez
Bota nai euskunetik.



Asiriko arloari ekin eutsen luzero eta naigabea atseginerazoteko erezten eben:

Gu negarrez geratzean
Emon deuskuz Iainkoak
A...-tar zaldunetan
Beren iarrizailleak.

Biotzean zan urrea
Ta zidarra buruan
Gudan zan ligoi sendoa
Ta bildotsa etxean.

Bermiotarrak len entzute ona baeunken oraingoan euren illeten dunduria alde guztietara zabaldu zan aurrerantzean illetak ondo erezten euazanari Bermeotarra zirudiala esateraiñoan.

Baiña Bermiotar ereslariok baiño obeto esango deusku nor zan Txomin, erritar batek; eta besteak bearsari onaz etxera doazan bitartean, goazan gu beste alde batera.

IX. MUNGIAKO SAKRISTAUAREN BARRIKETEA

Benetan illetak baiño arren eta eskari bero gartsuak illai geiago lagunduko dautse Iaungoikoaren aurrean. Alan da guzti bere antxiñako euskaldunak lurrean bere zabaldu gura izaten eben illaren egite gomutagarrien lurrun gozoa, ondorengoak aiñ arnasa garbia artuaz azi leien euren zanetan odol ona ta nastebakoa.

Elizkizunen ostean urreko auzoetakoak bakotxa nor-beraren etxera ioan ziran: baia urrunekoak senideakaz batera bazkaldu eben A...-ko etxaguntzan. Eta egia ez ostutearren agertu bear dogu batzuk bazkal ondoan burua zorabiotuta eukela eta beste batzuk biotza argi ta begiak leuso; baia alan da guzti bere etzan iazo ezbear aitatutekorik. Bakarrik naita-ezkoa izan zan sakristauari deitutea askoren gurariak aseteko.

Zertarako zala uste dozu? Ara ba, maikide batzun naia betetearren. Adi zagoz, iakin gura badozu.

Gaztetan onek etzekoen agindua egitearren erriko ikastetxean eta Abade bategaz ikaskizun batzuk bururatuta, asi zan Salamankan ikaskizun goragotuak ikasten, eta urte batzun buruan, ulerturik ez eutsala Iau-nak bizi-bide atara deituten eta gomutetan zalako arako umea zanean Amak lo eragiteko eresten eutsan zortziko asko-esangurez:

«Txikitxutatik Aitak eta Amak
Praie ninduen autatu,
Ikaskizunak egiten bere
Salamankara bialdu:
Salamankara ninoianean
Bidean neuan gogartu
Ikasle txarra ta alperra baiño
Obe neuala ezkondu».

Eta esan-on onixek diñoana egindakoan erea etorri zan aldi baten erriko guztiak eta Abadeak ontzat eukela sakristau egiñik gelditu zan. Alagalakoagorik idorotea eleite erraz izango; bada abadeak aiña ekian urrean; da berak ez ekian ipuiñik eta iazoyerarik etzegoan Euskalerrri guztian ez



arantzago bere, batez bere lenago txolin bete txakolin ogi-kopu bataz emon ezketiño. Gaur etzan gatz ori ta geiago emon al izatea A...-ko etxaguntzan iakin ezkeru bazkal ostean atarakoxe deitu eutsela. Edan ostean, beti miña eragiña ta zolia euki arren, iñozko bizkorren eukala agiri zan eta egozan egunari egokola asi zan erausten:

«Iaun eta adiskideak, azalduko deutsuet, entzun nai badeustazue, iazoera gomutagarri bat, Bizkaitar danak gogoan iosita euki bear leukena ta erri onetako semeak batzuk euren begi biakaz ikusirikoa eta guztiok entzutez beintzat dakizuen: baia gaur arira datorren ezkeru, iñoz aztu ezteiten eta euskaldun leituak berotu ta bizkortu daitezcan arri ta burdiñetan ezarri baleite gura neukena. Ene adiskideak, ioan dan gizaldiaren erdian 1457-n urteko Epaillaren 10-n, Gernikako Zugatzpean batu zan Bizkaiko Batzarra. Berean ziñegin eban Iaungoikoaren eta Maria Donearen aurrean kurutzea eskumeaz ikututen euala Errike XXVIII-n Iaunak gordeko eutsezala Bizkaitar danari euren ekandu, oitura eta Lege zar osoa, eta orduan ezautu euan Bizkaiak beren Iauntzat, egiñiko ziña zintzo gordeten euan artean. Baia 1470-ko asikeran zabaldu zan, Iauntzat ezagutu euan Gaztelako erregeak, egindako ziña ostikoperaturik Bizkaiko uri ta bazterren batzuk salduko asmoetan ebillela ziñoan albista ta barri zoritxarreko bat. Bizkaitar onak asarratuten dira ta bear direan asmo ta erabideak artutea erabagiten daue. Bien bitartean Errikek beren asmoak etzireala ontzat artuko Bizkaian, ondo ulertuten euanez, gura nai gurez bizkaitarrak menderatutea erabagi eban Perrandez Belaskotar Aroko Konde, beren otseñari dei egin da agindu eutsan, atarako diruzorro bat emoten eutsala, artu eiola indarrez Bizkaia, buztarripean iminteko. Errikeren atsokeria aurrera eroatearren, batu ebazan Belasko Aro-koak zaldizko ta oiñezko talda ezin esanalak, eta Santxo ta Luis beren anaian da Salinastar kondearen agindupean ipiñirik, gertu ta abiau zan Bizkaiari erasoteko.

»Bizkaitarren odola irakiten asi da Iauntzat eukanak egin gura eutsan lotsabakeria ikustean. Sorterriaren zorigatzaz errukituten dira, oraiñarte euren alkar-ikusieziñaz saminduten eben Oñaz eta Ganboatarren buruzagiak eta erabagiten daue gorrotoak alde batera bota-ta batzandutea arerioai iarki ta eutsiteko, eta lenago odol guztia ixuritea alango zitalkeria eroan baiño. Peru Abendañotarra ta Ioane Muxikatarra Gaztelako lurra itxi ta Bizkaitar gudarien aurrean iarri zirean, Bizkaitarren arerioen arerio batzuk lagunduten eutsela euren gorrotoak aspertutarren. Elizaurre onetako inguruetan itxaron eutsen, arek igezari emon gura eutsenean bide gatzak galerazo leikeoen.

»Iorraillaren goiz-abar bat zan: arerioak arratza urrean igaro eben, eta Belaskotarrak iarduan beren gudariak erasoteko eran ipinten; eta Bizkaitarrak beste ainbeste egiten daue. Etzan ezer entzuten agintarien aginduak eta zaldien irrintzak baiño. Alantxe iazoten da eguna illunduten asten danean zerua goibeldu ta laiño baltzak zeru guztia estalduten dabeanean, zer iazoko guztiak mututurik geratuten direala, alako baten odeiak ioten dauanean, trumoi-otsak dardara eragiten dautsala etxe ta bazter danai, ganera tximista eta arri-urtika goia bera datorrela dirudiala.

»Mungi-aldean bere egun atan turunta eta adarren zaratak ausi eben ixiltasun ikaragarria, eta baserritar morroskoen santso eta ujuju bildurgarriak dunduritu ebezan mendi ta basarte danak. Aurreratuten dira gudartalda biak eta zaldidiak bitza ta autsa darioela alkartu dira su ta salda burruka bizian, galtzaidu zorrotzak odol billa darabillezala. An zan zaratea ta an zan odol-ixuria. Len diz-diz egiten euen galtzaiduak gorritu dira eta bideko autsa odolez lupatzatu da. Zelai guztia illakaz eztali da, ta oraindik besoak eztira nekatu buru austen burdiña-ertzaz. Bizkaitarri galtzaiduak apurtuten iakezanean, dakarkioez azkora zorrotzak eta azkorakada bakotxean bat beintzat lurreratuten daue. Batzuri beste batzuk ordeztuten iakezala, iñok bere atzeratu gura eztauala biziak dirauan artean eta ill ezkeru naikoa lurrik dagoala Bizkaian eritxoan.

»Arratsaldea elduten da, gudariak alde bietarik asko urritu dira; baia biak zirkindu barik diraue eta azkorak eta aiotsak eztira nekatu zanak ebagiten eta galtzaidu zorrotzak biotzak zulututen. Illuntsaldean guztiai nekearen nekez besoak makalduten ioakezanean, Bizkaitarren biotzai euskerazko zarata bizkor eta indartsu batzaz indar barriak eta bulardetsuak emoten deutsaz gudarien agintari batek.

»"Aurrera, mutilak, goitu edo ill: Bizkaia ta geutarrak zaindu ta gorde daiguzan; guztiok batera ta arerio danok zapalduko doguz eta ziu-rra dago garaitza. Tira, mutillak, estutu ukabillak, erabilli burdiñak eta azkorak! Aurrera, aurrera!" esanaz eraso eutsen ta bildurrarren igez egin eben arerioak eziñ eutsiñik abiada sendo oni, ta eundaka lurrean aratiñik eta geutarren eskupean agintari batzuk itxirik aldendu zirean geiago gero atzetik esetsitean ilten zireala.

»Baia, nor zan ainbeste indar eta azartasun bulardetsu beren zarata eta begietako su biziaz Bizkaitarri ezarri eutsena? Nor zan Bizkaitarren izena egun eta odeietara eta izarretaraiño goratu euana? Nor arerioai egundoko bildurrik gorriena iratzi eutsena? Nor gizon aiñ gomutagarri ta Bizkaitar argidotarra?



»Eztago ume koskorrik erri onetan au eztakianik, eta auzoetakoak bere iakin beie Txomin zanaren izena, A...-tarren oiñordekoetan beren zanetako odola iratzi euna. Bizkaiak zaiñ eta iagola onak eukiko dauz beren antzeko gizonak dakuskuzan artean, ispillu orretan lotsatu barik begiratuteko azartasuna daukenak direan artean. Ondorengoak ikasi beie iazoera onetan etxeko anditasuna bide-onez zainduten, eta alkarreganako gorrotoak itxita gorde beie odola bizi ta garbi, auzokoen ekandu lotsagariakaz zikindu ta makaldu barik. Adiskideak, lurrean aiñ gogoz gure bazter ederrak iagoteagaitik iarduanak, zelango ardura zolia eukiko eztau zeruan?».

Eztarria leortuten asi iakon Manu sakristauari, eta txakolin tantakada batzukaz ezkotuten egoala, iagi zirean maikideak etxerantz abiateko belutu etxekioen eta euretariko gizon itzal andiko batek, Manuk azaldu deuskuna sendotuteko, esan eban:

—Ondo irabazita daukaz zerura ioan iakun geure senide gurgarriak entzun doguzan goratasun danak, eta Abendañotar ta Muxikatar zaldun agintariak sarritan autortu izan daue A...-tar Txomiñi zor eutsala Bizkaiak erdal-buztarriean ez egotea: Alan da, badakust; baia neure ustez oraindiño goraldi andiagoa irabazi euan beste aldi batzuetan. Itz bitan ulertu eragingo deusuet, begira; Txomin beren indarrik osoenetan egola, zirikatuten daue, bata makal bat zala, euren alde urteten etzalako igaro izan direan gorrotozko goraberetan; beste batzuk ez eukala odolik zanetan eurakaz gudara etxoialako; bein entzun bear izaten euan andra bildurti biurtu zala eta enparauak. Zer uste dozue, ez eutsala irakiten odolak alan-go txakurrenak entzuckeran? Baia egiazko Bizkaitarra zan eta bein erabagiriko asmo onean iraungo euan, nai ta izarrak bilinbalaunka lurrera iausi. Alango zirrikadatan bialduten eutsan Iaungoikoak laguntasuna Bizenti donearen bitartez eta sendo erantzuten euan:

«Gertu nago Bizkaiaren eta Eliz-amaren alde neure ta ene semeen odola askenengo tantakadaraiño emoteko; baia euren biotza erritarren odola ixuriaz samindu ta mingoztu daidala eskatuten iatanean, ezetz diñot eta eun bidar ezetz erantzungo dot». — Barriz, bete euan ala ez, ikasi dozue Manuk agertu deuskunez, eta liburuetan iratsirik bere ikusiko dozue.

Orain etxera bidean ezin geinkioe danai iarraitu eta geiago iazoera onen barri iakin gura badozu, irakurri eikezuz liburuak emen baiño obeto azaldurik daukena.

X. MUNGIAKO GUDA ITZ-NEURTUETAN

Orain ikusi gura badozu itz neurtuetan geure adiskide batek Bizkaitarren guda gomutagarri au zelan imiñi dauan, belarriak gertu ta zabalzabal egizuz entzuteko, bertan agiri dalako gure Txominen azartasuna.

Errike Makala izenez beintzat
Bizkaiko Iauna zanean,
Emengo mendi eta zelaiaik
Beretu naian iarri zan:
Iaungoikoari ta Batzarrari
Ez eutsen ziñ ein Gernikan,
Iagotea alkar bizkaitar lurak
Ekanduakaz batean?

Errike orren otsokeriaz
Asarratuten dirala,
Gure asaba bulardetsuak,
Etorriarren eundaka,
Aren aldekor Arabatarrak
Gaztelarrakaz batera,
Iarkiten iakez bidera urtenik
Aiotsa diz-diz daukela.

Iata deritsan mendi azpiko
Ibai zabalak bustirik,
Loretuten dan ibar galanta
Aurkituten da bertatik;
Gudari talden izugarritzko
Asarre-orriz beterik,
Dirudiala mendiak bera
Badatozala lerturik.



Gudalariak burdiñ zorrotza
 Darabilela eskoian,
 Sartuten diraz arerioen
 Galtzaidu-aiots artean,
 Zulotu nairik buru bularrak
 Auzpeztuteko lurreen,
 Azkorapean zama-bizkarra
 Ziz-zaz ebagi ostean.

Bakotxak gura leukez iruntsi
 Beste aldeko mutillak;
 Alantse autsa garbituten dau
 Aixé bundada gogorrek;
 Alan itxaso asarratuan
 Lats-begi zurrunbulluak,
 Bere erraietan gordetan deituz
 Zul-burdinezko untsiak.

Ara! guztiak nastarik dabilz;
 Baiña lur-bazter, etxeak,
 Seme-alaben eta seniden
 Bizitza-gordelariak;
 Begietatik ieurtiten dabez
 Su ta garrezko tximistak
 Ta irunsten dabez euren arnasan
 Amorru-garren indarrak.

Dardar erañik badarabillez
 Esku ta beso santsuan,
 Burdin-galtzairu zorrotz astunak
 Arerioak buruan;
 Nekatu baga ioten eurakaz
 Illik izteko soloan,
 Gudari illakaz estaltzen dala
 Zelai guztia inguruan.

Ara, begira! danen aurretik
 Badakust gizon sendoa,
 Azartasunez igarten iako
 Dala Bizkaitar zintzoa:
 Ea mutilak ea! esanaz,
 Goitu edo ill, aurrera!
 Aiotz astunaz tximista legez
 Ieurtin da etsai artera.

Indar barriak iratzi dautsez
 Bizkaitar nekatuari,
 Ta lau-oiñean amiltzen dira
 Balira legez oiñ asi;
 Arerioak eziñ eutsinik
 Alango bultzaka oni,
 Erbiak legez dakusunean
 Txakurra, doaz igesi.

Ara badoaz arnas-estuka
 Etorri diran bidetik,
 Lau, amar, ogei eta eun
 Geratu dira aratiñik,
 Besteak arin lotsagarrian
 Badoaz alkar nastarik,
 Ta darraioe Bizkaitar taldak
 Bizkar-apurtzen atzetik.

Bizi Bizkaia! ta bizi bedi
 Txomin Iaun A...-tarra
 Ta bizi bedi bai Abendaño
 Bai bizi bedi Muxika!
 Ta bizi bedi euskaldunetan
 Garaitza onen gomuta,
 Irakin daian odol zintzoak
 Izentetean Mungia!



XI. MATXIN ITXASORATU ZAN ARTEKOA

Bizkaitarrak ikaskizun ain ederra Mungiako Eliz aurrean gizakume danai emon eutsenetik Txomin zanaren eriotz osteko urteetara iazoera asko igaro dira, baia, iakitekoak izan arren, larregi eutsingo leuskue ta aldenduko gindukez geure bidetik, zeatz azaldu bear bagendukez. Irakurri eikezuz astia dozunean, iazoera onen azalmena dakarren iratsi ta esku-titsak, eta ikusiko dozu gure asabak Errikeren agintzari barriai iaramonik egin barik, lengoak aiñ txarto gorde euazan ezker, oraingoakaz bere bardin egingo euala beren asmoetarako ondo etorkonean da, autu euala Isabel Andrea ta urte gitxi barru onen senar Perrando Iauntzat eta eurak gure iagole zireanean bake galantean uri ta elizateak bizi zireala, ta edonon geutarrak odolik garbien eta goratuenekotzat egozala. Barri onek beste batzuentzat itxita ekin daiogun geure arloari.

Urte batzuetan A...-ko zaldun gaztea Bermeon idoroten dogu aldirik luzeenetan. Lenengoan Izaro ugartetxuko Prailletxean Nagusi zan beren senideari ikustaldi batzuk egitearren: bada iakingo dozula deritxat amaboskarren gizaldetik Asistar donearen semeak antxe eukala Kalaorra-ko Apaizpikoak 1422-n eregiriko bizitetxea, Bermeotarrak eraen baten eurentzat emon eutselako ugarte ori ariketa 1719-n Poruratu zireanean lurreratu zan arte. Matxin bada nozean bein ioaten zan ara igoten ebala Isabelek 1483-n igon ebazan beren lepotik betik goigoraño egiñiko mailletatik. Itxas-gizonen egikizunak ikusteak itxasora zaletu euan, eta itxas-gizonen egintza andiak entzuckeran biotzak taupa-taupa egiten eutsan beste ainbeste egiteko gurarien indar eta bultzadakaz. Agertu eutsazan beren osaba Praiskutarri beren gogoak, eta artu-emon da autu luzeen ondoren erabagi eben atarako ikasbideak bururatuten iarri leitela ta etxe-koak bere ataratu euazanean Bermeon iakinkizunak ikasten iarduan. Uri onetako Prailletxera izentatu euen urrengo urtean gure Matxiñen senidea bere, ta emengo Praiskutarren nausi izan zan, lobiak itxas-ikasteetan aurrerakuntza andiak egiten euazan bitartean. Komentu edo Praille etxe au Tello ta onen emazte Ioana Bizkaiko Iaunak 1352-n egiña ei zan, eta 1496-n urtetik bertan Praiskutar arau gordelariak bizi ei ziran, geroago Eliza barria 1539-rantz eregi bazan bere.

Osabearen esan-onakaz ezin esan daike zeinbateraiño sartu iakon Matxiñi Eliz-ama donearen goratasuna zaindu ta zabalduteko ta beren arerio guztiak birrinduteko guraria. Kristinauak urrineko lur eta ugarte zabaletan Siniste donearen asia ereiten iardueta entzutean poztuten zan eta bera untsiko nagusi zanean lagunduko eutsela erabagiten eban. Barriz arerioak tokialde askotan egin eroazan kalteak gomutatzen ebazanean, eurai iarki ta esetsiteko asmoak erabilzan gogoan.

Urteak orain legetxe orduan bere arin-arinka ioiazan; eta Karlos Bizkaiko 32-garren Iauna zanean, Matxin 1530-garren urtearen ostean itxas-gizon entzute andikoa ta autsiko Nagusia zan *Mungatarra* eritxola. Euskaldunak izen eta entzute andikoa beti izan badira, batez bere itxasekintzan, Matxin izan zan amaseigarren gizaldian beren izena izarretaraño goratu euana.

Aspaldian Turko eta Mairu-tzar Siniste donearen arerio gogorrik kalte andiak egiten euezan euren itxas-lapurretakaz. Bildurrez egoan Aita-Donea (edo Santua) Eliz-amari etorkiozan gatzakaz, Turkoak erasoten baebazan Italiako lurak. Agaitik Karlos Espaiñan eta Bizkaian lenengoakaz eta Beneziatarrakaz alkartasunean ba-u zan arei eutsin eta iarkiteko Karlos Iaunak eskiñi ebazan larogei ontzi nausi, Beneziatarrak beste ainbeste eta Erromako Aita-Doneak ogetamasei, guztiak al eben eran bear zan dana emoten euela ondo urten eien ondorengo aiñ andidun egikizunak. Erabagi zan Andrea Doria Lenenkoia, itxas gudarien Agintaria izan leitela eta Gonzaga lurrekoena. Matxin zan untsi baten agintari nausia, irureun bat bizkaitar beren menpean eukezala. Gure sinismen donearen arerioai esetsiteko eukan gurariak emoten eutsazan indar eta arnasa biziak ezin biotzean gorderik, igarten iakon arpegian eta begietan ainbat bazterren erasoteko egunaren begira egoala. Eldu zan eta Matxin beren erritarren buru zala batu zan Doriaren untsidiagaz eta abia ziran itxasbidean Lepantoko uretara azartuten zireala.

Agindu euan Erromako Aita-Doneak alde guztietan arren egin leitela Iaungoikoak gure untsidiari garaitza, ta Saliman Turko-tzarrari lotsaria bialdu leioen.

Badakizu Eliza-guztiaren Buru agiria zan Aita-Doneak agindu ezpa-leu bere, nok beti iraungo eban Iaunaren aurrean eskari bero goriak zera-tuten iarduala?

«Zoaz Iaungoikoak alan nai badau, zoaz eta zaindu eikezuz Elizamaren onerak, —zirautsan Matxiñi beren arrebeak igaroriko egun baten Karmengo Ama-Mariaren eskapulario bat zamatik bera ipinten eutsan bitartean—. Eskutu eiozu zeuk bere Ama laztan oneri iagon zaizala, eta



ni bere alantxe egingo deusat. Zoaz eta neure gogoa bere zeugaz batera ioango da, inoz bere aldentuten etzatsula, Iaungoikoaren ontasunari beti eskeka egongo natxazun legez».

Eta agur samurrakaz alkargandik aldendu zireanean, esan eutsan: Matxin, Iaungoikoaren alizate ta indar mugabakoak lagunduten badeutsu nik eskatuko deusadanez, garailari ikusiko zaitugu».

XII. IKUSMENA

1538-ko Iraillaren 27-garren eguna zan: Andra-Mariako Elizan beste egunetan legez egoan Mungian Billela, erritar guztiak donetzat euken A...-ko alabea.

Zetan inarduan iakiña da. Aurrenengo egun baten asi euan Migel done Goiangeruaren bederatzurrena, eskatuten eutsala zeruan aingeru deungoak goitu ta su-lezara ieurtin ebazan eran. Elizamaren arerio gogorak zirean Turkoak bere triskatu eizala beren galtzaidu zorrotzaz. Barriz Iaunak oraindiño kristiñauen ontzidiari garaitza emotea erabagita ezpaeukan, beren nebea eroan ontzia beintzat galbide ta gatx guztietarako iagon eiala. Auxe zan egunean egunean biotzeko gurari gartsuakaz egiten eutsan eskaria. Baia 27garren egun atan bederatzurreneko egikizuna amaitu ondoan gogartuten asi zanean, artu euan belauniko zirkiñik egin barik egoala lo gozo batek. Beingoan, amesetan iazoten dan antzera, begitandu iakon itxaso zabal-zabal baten ekusala ontzi bat eta bertan beren nebea. Inguru guztian erasoten eutsen beste ontzi askok trimindu gura ebela, arpelik baeragoien bere. Berealaxe erdiko ontzia biurtuten zala ligoi eritxon, inguruoak barriz ligoi ta artz eta otso eta beste pizti askotan, guztiak batera zatitu gura ebela; baia alan da guzti bere ezin goitu euela luzaro burrukan iraun arren. Gero ligoia barriro egazti ego-arindun biurtu zan, eta beste piztiak bere bardin miru, sai, mosolo ta enparau; baia arek ego ariñak eta aizeak lagunduten eutsela, beren areriotarik iges egin al izan eban, beste ego-astundunak karrakadaka atzean itxi-ta. Egazti ederra nora ioian ikusteko igituten asi zanean, lo gozo atarik itzartu zan, eta ezautu euan amesa edo zala, ta lotsatu zan alango burutasunak Elizan etorkazalako, eta Iaunari parkesaturik beren aldetik atarako biderik emon izan baeuan, etxeratu zan beren amesa ezin burutik kendu euala.

Benetan amesak ames direala esan daroagu, eta Billela A...-tarra ain Iaungoikotizat ezpagenduke, ezkeuskio iaramonik egingo; baia beren gogaita ta autorrentzuleaz itundu zan urrenge egun baten, Migel donek Iaunaren alde beren nebeakazko barri onenbat iragarri nai eutsala erakutsi eutsan ezkeru, iarraitu daiogun Matxini, iazuerak eurak emon daiquen ames edo gogargi orren atek idegiteko giltza.



XIII. MATXINEN ITXAS-GARAITZA

Aitatu dogun ontzidia Lepantoko uretara ioianean Arjelgo Errege bizargorri, Soliman turkotzarraren aldeko Agintaria Albanian Lartako ukolkoan egoan. Siñistedunen ontzidia Turkoenai erasoteko maniaten ebillela, beingoan geratu zan aizea, ta ontzi sutunpalariak eta gudalarienak bere orixegaitik gelditu zirean. Andrea Doria bein ertzetara ta zearretara, bein itzuli, bein ara ta gero ona ebillela, aldendu zan ontzidirik geienaz. Orduan Bizargorri malmutza beren ontzidi guztiaz iurtin zan; ondoratu iakon Matxiñi ontzira, Korfura ezkuta zan kristinauen ontzidiak laguntasunik emon eziñ eutsanean. Ingurutu euen alde guztietarik, txakur amurratuak legez beren ganera iausi ta aginka zatitu gura leukee. Baia, ainbeste arerio aurrean eukezalako bildurtu zala Matxin deritxazu? Bai zera! Turko ta Mairu arrotzarrak sua ta tximistak erioezala urreratu zireanean eunka itz-zantar eta birao-urtika, esan eutsen Matxinen ontzikoai:

«Alperrik dozue, makalok, eztaukazue indarrik itxasgudetan gure bultzakadai eusteko: emon zaiteze».

Ezekien nor euken begien aurrean: ezekien Matxin Mungiatarra bildurrik ezezuana zala.

Eztozu iñoz ikusi berezi-ertze baten goseak-illik dagoan otsoa zelan bildots makal otsanaren ganera iurtiten dan? Bada alantxe Matxin Mungiatarra eskuan aiotz galtzaiduzkoa erañnik sartzen da arerioen artean, eta guda garratzean dirau gau ta egun bitan Turkoak beren ontzira etozan baktotxean illik eundaka itxasora botaten, urak ontzi inguru danean gorrituten ebazala odol-ixuriaz. Eundaka sutunpadakaz aga guztiak apurtu baeutsezan bere, eziñ ezelan artu izan eben. Barriz Turkoak kalte andiak artu euezan ainbeste ill eutsezalako eta ontzi asko ondatu iakezalako.

Matxiñek, galtzaidua zatituten iakonean, oratuten deutso burdiñeari, ta au naikoa etxakonean arraunari, arerioen buruak birrinduten iñoz arikatu ez aspertu baga.

Eguzkiak iru bidar zirargiz edertu euazan zeru zabaletatik itxas-ur urdiñak, eta iru bidar arrituta geratu zan Matxiñen azartasunari begira-begira, eta Turkoen lotsaria ez ikustearren gero arpegia ostendu euan. Orduan aginduten deutso itxasoari asarratu deitela, eta onek amurruz astinduten dauz uinak, aize gogor baten putzakaz. Alan bada Turkoak euren ontziak gordeteaz naikoa euken bitartean, Matxiñek eun zatiakaz

eta egur batzukaz iges egiñ euan eta azkenik ez bakarrik bizirik, baita iñoz itxas-gudetan irabazi izan dan garaitzarik andienaz bere eldu zan Korfura. Arrituta geratu zirean guztiak baetorreala ikustean, ezeualako iñok uste eundaka ontziri bat bakarrik eutsin leikeonik, eta beraz gerta ezin leianztat eukelako.

Andrea Doria ontzidiaren Agintariak eldu zanean esan eutsan:

«Arren ontzi-buruzagia, neu Matxin Mungiatarra banintz, eta zue Andrea Doria!» añ anditzat eukan Matxinen egikera bardinbakoa, ta naigo eban ontzidi guztiaren nausia izatea baiño, arexen iaubea izatea.

Zein egia dan Iaungoiko altsuaren eskuetan iarrita beren goraldira egintzetan diarduanak beti zelanbait garaitza iadietsiko dauala! Zein zorionekoak direan eurakaitik arrenka ta otoizka arima Iaungoikoti eta garbiak daukezanak!

Andia da ta bardiñbakoa Matxinek bizkaitar lagunakaz gure Siniste donearen arerioakandik irabazi dauan garaitza gomutagarria; baia esker-rak beren arreba Billelari Iaungoikoaren aurrean auzpezturik laguntasun bazterbakoa emon eragin deusalako. Ara emen dakusku len amestzat bear bada geunkana, zeruko gogargia zala, eta arako inguratuten eben pizti amurrutuak eta egazti tzarrak Turkotar arerioak zireala, ta ainbeste galbide ta gatxurretik gorde zan ligoi bulardetsu ta egazti ego-ariña, zeruko laguntasunaz beren kalte-andi barik eta arerioen andiaz urten eta iges egiñ al izan euana Matxinen ontzia zala. Kalte andi barik esan dot; ogetazazpi Bizkaitar gudarien eta ontziko bigarren nausiaren eriotzak eta beste ainbeste Ama errukarrien negar malkoak, gauza gitxitzat euki al baleiz. Pozkarrizat izan bedi arerioen aldetik geutar baktotxearen orde eundaka il zireala, eta Eliz-Amaren alde bizia emon euen ezker, sari ugaria aurkituko euela beste bizitzan. Guda entzute andiko onetan Matxinen biotza geien samindu ebana izan zan beren azpiko bigarren agintari Mungiatarraren eriotza ta beren azartasunagaitik ainbeste onesten eban beste Bizkaitar bulardetsu batena.



XIV. DURANGOAR BAT ETA IAI BAT

Bizkaitar indartsu oni Durangoko Peru Oribe-tarra eritxon. Izen au, gomutetan bazara, ezaguna iatzu. Beren biotz eta beso indartsuak ezagutu daizuzan, oraintsuengo gudan ikusi dozunez ostean, beste askotan ondo agertu ebazala iakizu.

Karlos, izenez Alemanian boskarren Agintaria eta Bizkaian lenengo iaunak, Tunez beretu euan aldian, onen gudariak Goleta esitu eta ingurututa euen. Ara bada ordukoxe gure Peruren egikera izugarria.

Turko ta Mairurik indartsuen eta sendoenak lagun-artetik bidera urten-da, kristinauak ikusi leien, deadar egiten euan arroarren eta kiñuka, biderdi urten eta aurreratu leitela banan-banan iñor azartuten bazan arpegi emoten, nor zan geiago ikusteko. Gezia ta ezkutoaz zaldi ganean etorren onetariko bat aurkitu zan bein baten aurrez-aur Turko orren gangarkeri arroa eroan ezin-da galtzaidua esku batean eta bestean eskutua eroiola urten eutsan Oribetarragaz Turkoak ikusi ebanean galtzaiduak bakarrik ioakola Peru, ieurtin zan beragana ezten zorrotz luzedun gezia lenengo ukaldian edo zatzadan beste alderdiraiño biotza zuluturik igaroko eutsalako uste betean: baia zirkin arin bataz igez egiñ eutsan aren ukaldiari, eta beingoan erazo eutsan, lenengo aiotzkadan zaldia lurrera plausatada ikaragarrian bota-ta bigarrenean illik auzpez ezarri euan, gero burua sorburutik ebagi ostean Karlos Agintariari eroaten eutsala.

Onek Bizkaitar gudari sendoaren azartasuna ta egintza bulardetsua goraturik, saritzat zeinbat ogerleko emon leioezala agindu euan; baia Peruk ez ebazan artu gura izan, ziñoala:

«Eztot nik neure burua ilteko sorian imiñi urre ta zidarraren egarriagaitik, entzutea ta izen-ona irabaztearren eta bear nebana egitearren baiño».

Alan da guzti bere oraindiño geiago goratuten euala beren biotz eta azartasun Bizkaitarren duiña, artu eragin eutsazan Agintariak egikera ain andiaren ezaugarritzat gorde leizala aitaturik.

Agaitik esan dogu lagun onen eriotzak geien samindu euala Matxi-
nen biotza.

Egikera bardinbako onen ostean erazo ta artu euen Kataro-ko Kastilnobo Mungiatar Matxin eta Bizkaitar Ioane agintari zireala, eta Praisku Sarmiento an lau milla Españatarren agintari geratuten zan bitartean, besteak etxerako bidea ta azatza artu eben Done-guztien egunetan, igaroriko nekeetarik bi illebeteen atsedeteko.

Matxin eta beren bizkaitar lagunuen etorrerea egoaizeak ibar ta mendi inguru guztietara zabaldu izan baleu legetxe, beingoan iakin zan, eta auzo danetan atso zarretarik asi-ta ume koskorretañokoak batari ta besteari azalduten eutsen Mungiatar eta bere lagunuen egintza, bakotxak beren asmakizunakaz iantzi ta edertuten euala auzokoari entzun eutsazan barriak.

Batez bere Bermeoko sardin-saltzaillak ao ta begi zabalik eukezan egun aretan bideetako erri-ta baserritar guztiak.

Urte atan Billelako auzotegian Donanderri eregiriko baso-elizatxoan Matxinen izenean eta erritarren pozgarriztat egun andi ta iñozko iairik ospatsuena Azillaren azkenengoan egitea erriko auzitetxean erabagi eben Mungiako buru zireanak. Eguna eldu zanean emon zan Elizatxoan mezea eta Bermeoko Praille batek euki euan Donanderren doanditza. Agertu ebazan bertan Deunak gure Sinismenaren asia erein eta zabalduetearren bizitza emoteraiño irago euazan neke andiak; eta azkenengo aldean goratu ebazan Matxin eta lagunak Eliz-Amaren alde egiñiko egintza on izugarriak lurreko guztien aoan eta liburuen orrietan egazka ibilliko zala euren entzute ta izen-ona, eta Iaungoikoagandik epe laburraren buruan lortuko ebezala bearsari ugari eta ezin-esan- alak.

Biotzak poztuteko bere emon eizan txakoliña, ta txuntxun eta txilibituen ots gozoak neurtuta erabilli ei zirean oiñak; baia Iaunaren eskarrez orduan etzan, gaur lotsagalduzko ekanduokaz oi danez, garbitasun eta lotsa onaren neurririk austen dantza bidebako ta nabarmenakaz.

Egunak ioan eta egunak etorri Gabonak beingoan eldu zirean, da siñistedunetan eta beraz euskaldunetan, biotzak zabaldu zirean zeruko bakearen ostarari izateko. Gabonak iai pozgarriak edonoz izan badoaz, aurten iñozko alditan baiño zoriontsuagoak izan zirean, bai igaroriko garaitzen saritzat, baita geroago eroan bearko euezan neke ta laztasunen aringarri ta bigungarritzat.



XV. BESTE URTEIERA BAT ETA GUDA GARRATZA

Bete iakon onezkero atsedeteko epea, ta Matxin baterik bestera ibilli zan batzuei euren senideen barri emoteko ta lagunen billa. Egia da onetarako zeregin andirik ez euala artu bear izan, Bizkaitar gazteria guztia opa ta eskiñi iakolako, batez bere itxasaldeko errietakoa, eta gatxago egiten iakon egokienak aututea: ain asko zirean lagundu gura eutsenak.

Aurreko gizaldietan Bizkaian eta beste euskaldun errialdeetan burruka ebilzanen semeak beti egozan orain bere nogaz indarrak neurtu euki gurean, eta errian erarik etxetorkelako, erbesteratu gurariak zirrikatuten euazan etxe ta izenaren entzute ona zabaldutearren. Benetan egoera zorikaskarrekoa izen ona ta egikera argiak egiteko norberen burua arrotzu ta atzerritu bear-izatea. Baia negargarriagoa etxeko ta erriko zoriona ezerez-tzat begitandurik, auzoko ta atzerriko nekez idoro bear direan anditasun eta goratasunak anditasun egokitzat eukitea!

Egia da Matxin da lagunen ioakeraren itua ezjala onen antzekoa; gorago ezarten ebezan euren gogo ta asmoak. Baezauen zeinbat kalte Eliz-Ama doneari ekarten eutsen arerio malmutz eta zitalak, eta arei burua maillatu ta auste ta gure Sinismen donea garailari bazter danetara eroatea zan euren ardurarik biziena. Eta asmu ta gogo ain eregien ondolan erriko zorionak beren burua apaldu ta makurtu bear dau, batez bere onek nok iagon ta zaindu neurri betean da gonburu billatuten danean.

Gabonzarretan ikustekoa zan Bermeoko kaia. A zan gazteria galanta! Morrozko aren mardotasun liraña, ta zeinbaten begiak eroiazan atzean! Urte-barri egunaz batera asi euen itxas-bidea, itxas-basterra agur gozozko eresiakaz dunderitu ta Ama askoren negar anpuluakaz lurrundu ta gezalduta izten ebela.

Itxas-ur urdin lodian Euskalerriko kai ederrak atzean itxita ioiazala, itxasoz ibiltan eginda ez egozan asko uretan sartu izana damaturik egozala zirudien; ain da bildugarria itxasoaren asarre ta itzaltasuna. Baia berezko ondoera ioan iakenean biztu iaken arerioak goituteko gogoa, eta pozik aurkituten zirean Matxiñegaz alkarren leian gudara ioiazalako. Arpelik ekatxa, itxasoa amurrutu balitz legetxe, asten da orroaka itxas-gudariak ikaratu nain, zerua baiño baltzez estalduten dauala; bada geie-

nak beren atzamarretatik sarri iges egin izan eben, da oraingoa baiño bildurgarriagorik bere iruntzi-ta egozan.

Matxinek arpegian ezeuan ezer agertuten, mendekoen biotzak ez illunduteagaitik; baia biozketak iragarten eutsen ekatxaren asarrea baiño gatx-bide gogorragoen bat urrean egoala. Ezekian ziur eroian bidean iñor iaurkituko iakonik, baia iges ur arixetan arerioen indarketa guztiak lotsa-gorrian Iaungoikoaren laguntzaz itxi ebazan-da, bear-bada somau izango eben euren etorrerea, ta bidera urtenda gatx andia egin leikeoen, batez bere ezegoala urrean nori laguntasuna eskatu ekusenean.

Ibitu ta baretu zan itxaso astiña, eta goiz-alderantz urriñean agertuten da argi bat, eta eretxi onean inguru atan topau bear ebezan ontzi lagunak, alkarregaz andik aurrera iarraituteko. Albiste onegaz argitu ta poztu zirean biotz illunak eta atsekabetuak, beso-indarrez aurrera ioian ontziak argiro erakusten ebanez.

Baia, au miña! etzan guzurtatu Matxin lelungoko biozketaren igarkizunean. Etzan argi a lagunon ontzietakoa, areriorik amurrutenarenekoa baiño. Bizargorriren ontzidia zan da itxas-lapurretan iñarduan. Negu gogorrean bildotsen billa dabillen otso goseak-illa baiño gose geiagogaz etorren Matxiñen ontzira iaurkitekoko asmoaz, igaz iragoriko lotsa-gorria azpertuteko ta diru-egarria itotarren.

Estutasun onetan etzan ikaratu Bizkaitarren biotza. Galtzairuak eta aiotzak eskuraturik gertuten dira gudarako. Matxiñek lagunai itzaldi labur bero baten Iaungoikoaren da norberen izen-ona iagoteko agindurik, bizkortu euazan, berak iarraipidea egikerakaz emonaz, Mairuen indarka ta bultzakadari eutsiteko. Begira, ligo bat otsotalda baten erdian legez aurkituten da.

Nok bear dan eran goratuko dau Matxin eta lagunon bulardetasun eta azartasuna? Eguzkiak bere egun atan goizago urten ei eban egikera aiñ arrigarria ikusi-gureaz. Zerua bere euren alde gudan ebillela esan leikean. Mairuai galazoten eutsen aize burrundaratsua atereaz. An ikusiko zenduan zelan Matxin eta lagunon eskuak biziro erabillezan galtzairu ta azkorak zatzada bakotxean buru bana edo geiago itxasora ieurtiten, uriolaren antzera ioian odolaz gorrituta egoala zirudiala. Baia asko zirean arerioak eta geutarrak askori bizia kendu arren zeinbatu ezin-ala geratuten zirean oindiñokarren, eta Bizkaitarrak bere nekatu ez-eze gitxituaz bere baioiazan. Onetan Matxinek barriro lagunon biotzak sendoturik urratu gura izan euan beren ontzia ustaiturik baeukan ontziteria, eta bultzaka gogor bategaz bidea idegitera ioian.



Ara! begira! ontzi bakarra ainbesteren indarrai eutsin ez-eze, ganera bere iurkiten iake; ta buru ta ondoak ebagi ta ontziak ondatu ebazan, abe-nagusiak eun zabalakaz, olak burdiñakaz zatituta nastean bera etozala. Alantxe udako goiz aro oneko baten gizonezkoen itaiak gari arloak ebagi ta galburuak lurreratuten dauz.

Baia, O Iaungoiko guztialduna! zakonak dira zure asmo ta erabagiak eta urrin dagoz gizonen erabagi ta eretxiak zureakanik! Bazirudian bigarren aldiz imiñiko zeutsala Matxin Mungiatarrari bureztun argi bat lurreko andienen artean diz-diz egin da euren begiak beren argi-erraiñuz lilluratu eutsena: baia beste eratara iratsirik euken zure atzamarrak gizaldietako liburuen orrialdetan.

Matxin gudan gori ta su ta salda ixioturik egoanean, iausi zan zauritua; ta bera lagun guztien biotza zana lez, kendu iakenean, laster arerioen ontziak ingurutu eben, da bein oratu eutsenean Matxin zaurituta egoan eran aurkitu zan Bizargorriren aurrean.

Ara euskaldun errukarriak mairu gogorren atzaparretan! Ara Matxin orain, aurreko urtean garaitzik andiena irabazi eutsanen erpe artean! Zer iazoko etxake? Ai balekie iazoera au Euskalerrian, zeinbat Ama laztanek negarrezko uriolak ixuriko leukezan! Aldendu daiguzan begiak emendik eta itzuli daiguzan iaioterrirantz eta ezarri Mungiako auzotegian.

XVI. MATXINEN ARREBEAREN EGITE ONAK

A...-ko etxaguntzan aspaldian zoriona baiño besterik agiri etzala bizi izan zirean, bertan guraso onez ostean zeruko oneste guztiak beragana ekarzan Billela Iaungoikotia aurkituten zalako. Eta Iaunak beren begi ongilleak beren otsein zintzoetan ezarrita daukazan legez, A...-ra ondasunak eta onera atsegingarriak ugari ixuriten ebazan, ingurumarietakoen begi ta biotza bertaratuten zireala, ez gatzik angoai opa izateko, Iaungoikoa goraldituteko baiño.

Billela beti Iaungoikotia. Elizkizunetan, Sinisteko egien gogartean beren atsegiñak eukazan, etxeko arazo ta zer-eginak aztu barik, onek ondo beteteko (berak ziñoanez), aretarik indarrak ateraten ebazala zeruko laguntasunaz batera.

Ille batzuez onantz aldatuta dagoala dirudi, zegaitik ete dan oraindiño ezpadakigu bere. Len oraiñ legetxe donetasuneko mailletatik igoten azkar baiñarduan bere, guztiakaz zan argia ta etxe-aldean guztiz ereslaria: onetarakoxe batuta eukazan Elizan da osterantzean entzuniko aotsaldi ta gozitzak. Agaitik iñon salduten bazan onelako gai-ondunik erosteko berarizko ardurea eukan, eskeko ta itsuetarik bere batzuk ikasten ebazala. Batez bere Iesus da Maria donearen anditasun edo maitetasuna agertuten euezanak gura ebazan ikasi ta irakatsi. Atarako iratsirik eukazan eta ara emen alango *Iesusen izen gozoari eskaria* dan batek zer diñoan:

Zerutar itxaromena
Da zure izen gozoa,
Txori-txiorik onena
Baiño txit gozoagoa,
Aragi ta gogoena
Zara sendagai osoa,
Belarri ta biotzena
Aots ezti, poz zintzoa:
Ai zoriوندun izena
Sutu eidazu gogo.



Eta Bernardo doneak Iesusen izenagaitik ziñoana: «*Iesusen izena... ezpanetan eztia, belarrian eresindasuna, biotzean pozkaria*» itz neurtu onekaz edo onen antzekoakaz eresten euan:

Ezpanetan eztia

Zein gozoa dan ezti zatia
Aoratuten danean!
Geratu doiaz ezpan da aoa
Ezti egiñik iatean...
Bada *Iesusen* izen gozoa
Esaten dogun unean,
Ezteritxazu zeru eztia
Dagola ezpan artean?

Biotzean pozkaria

Gura badozu atsegin-poza
Idoro biotz barruan,
Ta itxas-ura lain zorion utsa
Ikusi zeure inguruan,
Iesusen izen atsegintsua
Zintzo maitetu orduan:
Pozarren ozta egongo zara
Bazengoz legez zeruan.

Belarrientzat eresindasuna

Belarrientzat soiñu gozoa
Ibai txikien murmua,
Txori politen txirritxioa
Txilibituen txistua;
Baia eun bider gozoagoa
Iesusen izen dontsua
Au entzutean egon eztoa
Lur-erbestean zerua?

Azkena

Nok eztau gura ezti-zatia?
Soiñuak belarrientzat
Euskalerrian eztauka abia?
Nok eztau gura pozen bat?

Biño aoak izen-goitia:
Nik *Iesus!* eresten baiat
Belarrian, poz zoragarria
Gogoan euki daroat.

Zek ixildu euan ba A...-ko ingurumarien pozgarria zan ereslari Iaun-goikotia? Nebeak etxean iraun bitarte laburrean, arean argitu iakola biotza bazirudian; baia arrezkero lenagoko illuntasunera iruli da.

Destaiñarien batek, oi danez guzurak iñori sorturik, Mitxel urrindu iakolako izan bear euala edo esaten azartu ei zan, iaramonik iñok egin ezpauetsan bere. Mitxel nor dan ez al dakizu? Masustegiko etxaguntzako bigarren semea; gaztetxutandik Matxinen laguna ta igezko garaitza ospatsuan il zan beren ontziko bigarren agintari Mungiatarraren anaia. Eta zer? Onen alaba ta Billelaren gurasoak itundu ei zirean ta erabagi eben gazteen artean ostetasunik egon ezik alkarri eskuak emon eioezala. Eta Mitxel atarako gertu ta prest egoan ezkeru itandu eutsen Billelari beren eretxia, ta, ain esanekoa zana lez, gurasoak orretara ain zaletuak ekusazanda, autor-entzule ta arimako Aitaren eretxiaz, baietzeratu zan. Alan da guzti Iesusen maitetasunaren atsegiñezko ura edaten egiña egoalako, guztiz gatx eta aldatz gora egiten iakon beren biotza besteren bategaz erdi-banateua: agaitik ez ekuzalako, gurasoak samindu barik, Iesusi biotz oso-oso emoteko biderik, ernetan zan beragan aspaldian eukan illuntasuna. Gogo sendoaz ioten ebazan Iaunaren iakituriaren atea arren eta eskari gartsuakaz, argiro erakutsi leion bere nai-izana.

Mitxelek A...-ko alabearen duin izateko gura izan euan egikera andien bataz beren izena goratu, eta onetarako garai ta adiuntza egokia zala Matxiñi beren ioataldian lagun egitea uste izanik, Bermeotik Gabon ostean urten euen euskaldunetariko bat izan zan.

Aitaturiko ezta-baida ta artegatasunetan laguntasuna eskatuten egoan Billela, geure Iauna artuta eskerrak emondakoan iaiegun goiz baten. Iesus laztanari beren eta beretarren gauzakaitik bitartekotasun altsua imini leiala iñotsanean, otsein zintzoen Aita errukior eta maitalari dan Iaungoikoak agertu eutsazan antz-irudi baten bidez geroke iazoerak, lenengoan ain argi ezpaezauazan bere, biotza poztu-eragiteko, ta geroago dana igarrierazoteko naikoa zan eran.

Lelengo barriztau eutsan igazko ikusmena, baia azkenean ez euan, orduan legez, egazti ederrak igez egin ta bai izan zan beste motz eta itxusiak il-da iruntsia. Gero barriz biurtu zan uso polit eta odeietarik iatziriko beren antzeko aldra batek lagunduten eutsala ostendu zan goiko laiñoen



ostean, geiago ezer ikusten etzala, baia berari deiezka egozala zirudien aots gozo batzuk entzuten ebazan laiño eder oetarik urtenikoak, bien bitartean beko aldean aiezka ta gedarrez laguntza eske iñarduela beste batzuk, edonori errukia emonerazoteko eran.

Ikusmen onetan ekusan beintzat beren nebea ta lagunak arerioakaz burruka ta guda gogorrean ebilzala, ioan zan urtean legez. Baia, zer adie-tan emon gura eteutsan arako egazti polita urratua ta iruntsia izateaz, eta uso biurturik odeiez gora igoteaz, eta andik deiezka egoteaz eta beste lurrean geratuten zireanen oiu eta garrasi errukarriakaz?

Guk dakiguna da, ikusi dogulako, azartasunik eta trebetasunik arri-garrienaz iarki ta eutsin ondoan arerioen ontzidi osoari, Iaungoikoak alan gura ebalako, Matsin euskaldun Agintaria zauritua izan zanean, laster Tur-koen da Mairuen azpian iausi zireala. Aurrerantzeko iazoerak Billelaren gogozko ikusmenaz zer-ikusirik ete dauken ulertu eragingo deuskue ikus-tera goazan gauza iakitekoak.

XVII. BURTZEÑAKO PRAILLEA MUNGIAN

Barakaldoko erriaren entzutea eztaukanik eztago Bilboko enparan-tzan, lapikorako iakia erosten doazanen artean beintzat, ango baratz ugari eder zelaietarik geiena bertora doalako. Ordu ta erdiko bidea Lutxanan zear oiñezkoentzat dauka Done Antonen Eliz-ondoraiño, orain burdin-bidean bidez beingoan Bilboratuten badira bere.

Amalagarren eunkadaren goienetik erri onixen mugapean Burzeiña deritxon eta Balmasedatik atxiña datorren Kadagua ibaiak buztiten dauan ibarrean Bakartegi bat egoan eregita. Bertako Prailleak barriz beste one-gite askoren artean, iarduen mairuen agintza ta katigutasun gogorrean lotuta bizi zirean siñiztedunak, bizia ta sinizmena galduteko sorian beti egozalako, erosi ta euren erri ta senideakana erakarten, onetarako neke latz eta gogorrek urez eta leorrez eroiezala. Eta praille ongille onek edo-non zabaldua ebilzan legez, laster Burzeñako anaiai emon eutsen euskal-dunen ontzia Bizargorrik arrapatu ta ostua izan zala adierazoten euan barri negargarria eta katigutasun estuan eukazala eurakaz diru asko ire-bazteko asmoan. Agaitik iakitun egin eikeezala euren senide ta adiskideak erririk erri euren seme, anai ta adiskide gizagaiso errukarriak erosteko diru ta laguntza billa ioanik, ainbat lasterren egoera ain nekagarri atarik urtenezoteko.

Barri onen ostean badakusguz Burzeñako praille onak euskalerrian ara ta ona, biotzik gogorreana eukiarren edonor samurtu ta errukituteko aiñan agertuten ebela katiguen zorigatxa ta bear-izan mingarria. Beste errietako iazoerak alde batera botarik, bakar-bakarrik Mungiakoak aita-tuko doguz, bai besteetakoak emengoen antzekoak direalako, baita berta-koak gure arloari berarizko eran dagokazalako.

Iai-eguna zan. Meza nagusian igo eban irakastegira soiñeko zuridun praille Burzeñatarrak, eta agertu euan ekarren zeregiña, eurai ainbat ioa-ken egiñena. Aurrenengo iragarri eutsen Matxin eta lagunen zorigatxa. An agertu eutsen zelan idiak baliraz legetxe kate lodiakaz idunetik esturik, arrastaka eroiezan enparantzetera, saldu ta erosteko edozelango salgeia-kaz egiten dan eran. Gero buztarripean ipiñi ta akulututen euezala, bear



ta lan egiñerazoteko, erosi ebazan iaubeak azkenean nori saldu ezpaeukan edo otuten iakonean garrondotik burua kenduten eutsen.

Eta, zelan eroiezan bazter batetik bestera? Ikusi dozue kaien baten zelan artaldak untziratuten dabezan? Alantxe egiten daue, zirautsen Burzeñatarrak beren entzulai, alantxe egin daroe katiguakaz bere. Esku ta oñak lokarriz esturik botaten dauez ontziaren ondora pillotuta, eta an batak bestea zapalduten dauala nastaurik igaro bear izaten daue, ariketa beste kai baten kanpora salgai ateraten dabezan arte. Ai eta erosten badauez siñiztedunak ez tiranak aldatuten iake ugazaba, baia a biziera errukarria. Bada ezer emoten badeutse, ill etxaikoezan da, abereakaz egiten dan legez, geiago iraun daien.

Askotan iazoten da, alogereko zaldia burdientzat artzen diranean iazoten iakena. Zeinbat bear egiñerazoten etxake? zeinbat zigorkada, zaplazo ta ostikada emoten ez iake? Alantxe eskuetan idi-zilla erabilliaz daroez iaubeak lanera, eta an soloetan eta meatzetan zigorkadak neurtuten deituez, narrua larregi ez erasteaz, edo makillakadakaz azurrak ez austeaz; osterantzean aragi guztia manatu ta andituta darabillela. Ai zeinbati miñaren miñaz beren Amari dei egiten, miñak arinduteko, zartada barriakaz ixilduerazoten deuten! Eta onek, ain errukarriro bizi direanok, nortzuk dira? Ai! geure senideak dira, geure adiskide kutunak, geuri deiez laguntza eske dagozanak! Zer egin bear eztozu euren oñetako kateak austeko? Zelan ez tira errukituko geure erraiak euren *ai!* mintsuak dantzuguzanean? Eta beste batzuk euren odola ixuriteko gertu dagozan ezker, zer? eta gu zakelak nasaituteko nagi izango ete gara? Egikerak erantzungo daue.

Onixek eta beste gauza eder asko esan euazan goiz atako Mezartean Burzeñako prailleak, Mungiatar andrazko ta gizonezkoen biotz eta begietarik negar anpuluak erioezala.

A...-ko ta Masustegikoen begiak urtu ezpaziran euretarren zoritxarraz, izan zan Iaungoikoaren naikundean, siñiztedun onak ziran da, uste betea ipiñirik eukelako. Nok ulertu erazo zer emoteko gertu eta prest ete egozan euren senide laztan eta erritarren alderako? Bestegaitik ezer ez esatearren A...-ko Billelak, ez bakarrik emon gura izan euan berari egokozan ondasun danak, berpertatik atarako gurasoen baimenez izentetan ebazala, baita bere, geiago dana, beren burua bere salduteko pozik andienaz opa euan, eta dana dala eskiñi eutsan beren bizia Iaunari Euskalerriko katiguen askatasunagaitik, kalte barik gorde ta etxeratu leizan. Erabatera dana esatearren, egun atan Mungiarrek emon eben al izan eben dana, eta batu izan zan angoak eta beste asko erosteko laiñ bere.

XVIII. KATIGUEN ETXERATZEA TA MATXINEN ERIOTZEA

Bien bitartean eskari samurrak egiten iakozan Iaunari ta itxauten zan Burzeñatar eta euren anaiak ondo amaituko euela Matxin eta lagunen erosmena. Igaroten ziran egunak eta illak, eta luzetuten zan euskaldun amaen larri samiña; ariketa egun pozgarri baten tximiztea legez zabaldu zan arte Bizkaiko kai ta itxasbasterrera io ebela katigu egon izan zireanak.

Lengo estutasun eta samiñen aiñakoa izan zan barriro sortu zan atsegin da poza. Errian itxauteko astibaga abiaten ziran itxasaldeko bidean zear, euren senideak bizirik ikusteko gurari biziaz.

Orañ itanduko dozu, eta Matxin erriratu al da? Masustegiko zalduna bizirik eldu da? Orrako Mungian laztanduten eta besarkatuten diarduenetarik, zein da Matxin?

Itaune onei euretariko batek erantzungo dautse ta alan iakingo dogu zer iazo zan Bizargorriren erpe artean itxi genduzanetik gero.

Masustegiko zalduna, Mitxel gure ezaguna izango da albistaria, entzuteko belarriak zurtuten badoguz. Egunduetan Ama batzuen poza ta atsegiñak nasta zirean beste batzuen negar-mpulu ta zotiñakaz. Gero iazoerak azalduten iñarduenean Bizargorriren agintza gogorrenen buztarriean len idoro zireanak, adi-adi egoten zirean entzule danak, eurak bere antxe egon baziran gura leukeela. Era onetan euskal bigira baten eragoion Mitxelek azalduten Bermeotik urten ebenetik arako egingtzak eta guk esanik daukaguzan iazoerak gitxi-gora-bera erakutsi ostean, ekin eutsan beren sailari alantxe:

«Iaungoikoak alan gura-ta garaitzarik ikusgarriena lortuteko gengozanean, iausi gintzazan, Matxin gure nausia zauritu zalako, arerioen ontziaren menpean eta Bizargorriren aurrera eroan ginduezan bera ta lagunok. Orduan asi zan beste guda garratzago bat: bada ezaguturik Bizargorri Matxinen biotz eta azartasun bardinbakoak beraganatu gura eban ainbeste gauza zan itxas-gizona. Eskatu eutsan Tarko biurtu leitela goraturik igaz Prebisa-ko gudan iaditsiriko garaimen entzute andikoa. Agindu eutsan alan egiten baeuan ipiñiko ebala ontzidi osoaren bigarren ta beren urrengo agintari eta beren izena zabalduko zala argi-erraiñuz beterik lurreko bazter guztietan, beren ondasunak ez euela eukiko neurririk eta



biziko zala gero atsegin gozoen artean. A...-ko semeak, Billelaren neba sinizte bizidunak, beren zanetan euskaldun asaba garbien odola eukan, eta beraz siñizteko egiak ukatu baiño lenago emongo eban dana, Iaungoikoaren aginduai zintzo eustearren. Benetan itandu eutsanean Bizargorrik: “Kristinau irauteko asmoa daukak? Ez dazauk ene eskupean agoala ta gura ioadana egiteko eskubidea iaunkoadala? Autu eik bitarik bat: edo kristautasuna uldu edo bizia galdu. Zer diñok?...”.

»“Iakin eik, diñotso, iakin eik siñizte osoduna ta euskalduna noala, eta Iaunaren laguntasunaz berean zintzo iraungo ioadala, naiz da eguzkiak lur-itxasoai argi egiten ieutsen artean neke-miñ eta ala gogorrenak irago bear izan”.

»“Zer diñok? erantzun eutsan Bizargorrik; eztakik beingo baten aiotzaren ago zorrotzak, geiago badirauk eure siniztean, ebagiko ioazala ire buru ta aragiak? Eta ire seta bidebako orregaitik eure lagunak bere bizia galdu bearko iauela?”.

»“Alperrik dok eukitea, Matxinek Matin doan artean etxok sinizmena ukatuko eta ene lagunok bere baiakiek ondasunik goratuena sinizte donea doala eta aurrenengo bakotxak berena zaindu bear ioala. Nik barriz ez bizitza bat, baita eun banaieukazak bere, danak Iaungoikoaren goraldirako eta sinizmen donearen alde pozarren osta emongo naieukezak”.

»Amurrutu zan onelango erantzuereaz eta galtzairua goraturik ebagi eutsan Matxini burua sorburutik, gero zulututen eutsala biotza. Azkenik bota eben itxasoko uin artera, beren arima ederra igoten zala odeiak urratuturik zeruko iargoiria betiraunean bardinbako sariak atsedeteko. O sinizte donea iagotarren bizia emonaz irabaziriko garaitza zorionekoa! Matxinen arimeak zerura egaz egin ebanean aingeruak lagun euazala, guztiok gengozan gerturik eta pozarren biziak emoteko, itxas-bidean gure buruzagia zanari, zeruko bidean bere iarrantuteko gurari ixetuaz. O Matxin lagun ona, deadar egiten neutsan, zelan diraut bizirik zu nigandik al denduta? Zer izango da gugaz zure aurrean ez kagozala? Zelango arpegiaz elduko gara Euskalerrira iñoz aratuten bagara arerio onen erpeetarik urten-da? Eta bakotxak zirikatuten ebazan arerioak beste ainbeste beragan egin eiela eskatuaz siñiztedunak zireala-ta. Baia diruzaleak zirean ezkerro, ondasun andiak batuteko ustea euken, salgai imiñirik nok ondo erosi izango zalakoan.

»Guk Turkotzarren buztarripean irago doguzan neke ta larritasunak eta enpaduak ulertuteko, bertan egon bearko leite eta arean lendik ba ei dakizue.

»Baia, nok aituerazo gure erosle doneak, Burzeiñako Bakartegi-tar eta anaien ardura andi ta egikera onak kristiñauak siniztea ta ekandu onak galdu etzeiezan eta gure egoera negargarria arinduteko? Amaika esker zor iake ongille ain bardinbakoai! Askok eurakaitik badauke katigutasunetik askatu-ta sorterriko argi ta aixaroa atsedeteko zoriona, zeinbategen euren bidez badirau oraindiñokarren geure sinizmen donean. Turkoen esetsi danai eutsiñik? Eta, zeinbat euren iarripide onen bitartez zintzo iraun ondoan Iaunak eroan dauz oiñaze miñ eta ala gogorren alogera ta bearsari aberatsak emoteko zeru zabaletara?

»Egiaz, praille onen katigu-errukarriakanako maitetasunak biotza erain eutsan Iaungoikoaren laguntzaz ezelango eran lagundu al baneutzen euren egintza doneai, dana egiten eskiniterañioan; eta Iaunak gauzen ioapideak alan zuzenduten baeuzan, neure burua bere onetarakoxe opa neban ondasunokaz batera».

Beste gauza asko bere baziñoazan Mitxelek Turkoen artean, Matxin andiak sinizdonearen alde bizia emon ostean iazorikoak eta iakingarriak izan arren, emen ain egokiro eztatozanak.



XIX. BILLELAREN ERIOTZA GOZOA

Oraiñ A...-ko etxaguntzan begirakunea ezarten dozula, iakin gurako dozula deritxat zer gerta ete dan bertakoetan, eta batez bere Billela Matxinen arreba Iaungokotiagaz.

Mitxelek ekarri euzan barriakaz batzuen biotza lelengoa illundu ei zan, baia Billela pozez ganezturik legez ebillen, argi ta garbi aurretiko ikusmenaren askakuntza igarri eualako ta sarritan entzuten eualako bera-ri egiten eutsazan dei gozoez dunduria. Ordutik emon zan geroago ta geiago zeruko gauzak gogartean ausnartuten, eta irakiten eutsen erraiak Iaungoikoa ta Maria Orbanbakoa ikusteko gurariak sortuten eutsan bero gartsuaz. Asi zan eskari samur eta goriak egiten, arren! laburtu leitela lurreko bizitzaren epea, bete leitezana nebeak, zerura uso politaren antzera Turkoen atzarnarretarik egaz egitean, egiten eutsazan deiak. Onetarako iminten euzan bitartekotzat beste zerutar eta done autuen arrenakaz batera beren neba maitearenak.

Eta esan da egin: egun gitxi barru emon eutsazan Iaunak beragantutu gura ebalu ulertu eragiten eutsen ezaupideak. Artu euan sukar zoli batek, eta osagillak laster ioango iakola esan arren, ezetz iñoan berak, eta etzagoala osatuko zalako usterik euki bearrik, alper zalako, Iaunaren erabagiak aldatu ezin leitekezala-ta. Ainbat lasterren artu gura izan zeituzan Elizako guztiak eta ikusten ioakozan guztiak eskatuten eutsen, arren! poztu eitezala beragaz, lurreko neke ta atsekabeak itxi-ta zeruko azkenik bagako bizitzara ioialako. Beren maitetasuna zan Iesus laztanagaz eukezan autu gozoak eta bardin beren Ama Andra Mariagaz. Egunero geituten iakon gaixo, sukar bizia, eta eldu iakon, maitetasunaren indarrak bul-tzau-ta, itxaroten egoan eriotzako unea eta Iesus eta Mariaren izen gozoak biotzean eta ezpanetan eukazala emon eutsan Iaunari beren arima garbi, eder eta maitatia, laztan gozo batz nastean; aingeru bat zerutik iatzi ta illgo balitz geratuko leiten eran, geldituten zala beren gorpuzkia.

Askok goratu ebezan beren egite onak, batez bere urretik ezautu ebenak. Baita eskeko askoren negarrak ondo agertuten eban euren Ama ta gordelaria izan zala benetan, zeruko iargoi goratuan ainbeste onegiñen sari ugaria artu izango eban A...-tarra. Zorionekoa egiaz eriotzako orduan ain ezaugarri ederrakaz aurkituten dana! Zorionekoak bizitzan berak legez asi onak ereiten dabezanak, une atan onera bardiñak batu ta lortu al

izateko! Baia zoriontsua benetan Billela lez Iaungoikoaren maitetasunaren indarrez illten dana, zeru zabaletan Bera maitetu ta laztanduteko betiraun guztian.



XX. MITXELEN BARRIA

Onenbestegaz bideak leundurik geratu iakozan Mitxelen Jaunari opa eutsan eskintzaria beteteko. Bada etxekoen ostetasun pizka bat goiturik, itundu zan egun gitxi barru Burzeñako Bakartegitarrakaz eta onek eskale argidotarraren asmo ta uste goratuak lenengo azterturik, bakar-laguntzat artu euen, ordutik Masustegiko semearen biotza poz barri ta neurribako-az ganezkatutik ebillela, ber-berak beren burua ezagutu ezin euan eran. Gero zeruko bidean egin euazan aurrerapenak eta betiraunerako irabazi zituan ondasunak Iaungoikoak ondo neurtuta daukoz eta euren saria atse-deten idoroten dala deritxagu eta egunen baten guztiok geure begien aurrean ikusiko dogu.

Baia iakitekoa da beren bakar-lagunak eskatuta sarritan azaldu bear izaten ebazala Matxinen eriotza eta beste egikera arrigarriak, eta batek baiño geiagok iratsi ebazala egintza gomutagarriok, geroko gizaldietan beren entzute onak iraun eian, eta batez bere Bizkaitarrai antxinakoen oñatzai iarraitu leioen iarraipidetzat iminteko.

Ara emen itz neurtuetan zelan goratuten dauzan Matxinen izena ta egikera andiak, non edo non ikusi genduan eskutizmen batek.

XXI. MATXINEN EGIKERAK NEURTITZEAN

MATXIN MUNGIATAR EUSKELDUN ARGIARI

I

Bizkai-erria, entzun eidazu:
Nik zure goratasuna
Erestean gaur nai neukeoe
Iratsi ezetasuna
Austu ta igartu diran azurrai
Kenduaz makaltasuna
Bizkortu daiten biotz danetan
Indardun azartasuna.

Bizkai maltea, betiraunean
Iainkoak gorde zaizala:
Erez neurtuan zure egikerak
Goratzen asten nazala,
Alkarren leian amaika gizon
Dakusdaz iatordazala
Euren artean aukeratuten
Neuretzat erraz eztala.

Bizkai neurea, seme argiak
Daukazuz zeure altsoan
Eun da eun aldiz atzerritarren
Goitulariak gudetan:
Baia gaur miñak eresi nai dau
Itz neurtu eta gozoan
Matxin euskeldun Mungiakoak
Zeiñ toki daukan euretan.



II

Iaungoikoak ugari
 Zabaldu euazan
 Loraz estalduriko
 Zelai ederrean
 Erri politxu batek
 Atsegiñ artean
 Burua goratzen dau
 Ibaixeo ertzean.

Mungiaren izena
 Berari Bizkaian
 Pozez deituten iako
 Inguru-marian:
 Erri zoragarria
 Zara bai benetan
 Txori abi bat legez
 Ibarren erdian.

Urregorritzko miñaz
 Erezi gozoan
 Txoridun baso, landak,
 Arrañak daukezan
 Ibaiak zuk imiñi
 Al zeinkez zeruan,
 Berezi, mintegiak
 Soroi en ondoan.

Baia *Matxin* andien
 Izena Mungian
 Entzun beite pozezko
 Dunduri artean,
 Berak argierraiñuz
 Bizkaiko lurrean
 Gaillartu danalako
 Izarrez ganean.

III

Gudari ona da *Matxin*
 Ta biotz andiduna,
 Bere besoen indarrez
 Eun aldiz mairua
 Aiotz zorrotzaz igeri
 Arin bota euana.

Guda garratzen ostean
 Bizkaiko lur gozora
 Biurtu zan Buruzagi
 Beren bekokiertzaz
 Eriñotzezko estunaz
 Apaindua eukala.

Ezin da egon luzero
 Atsegin da pozkira
 Idoroten dan lurrean;
 Ara, badabil deika
 Beraganduten lagunak
 Goituteko Mairua.

Matxinen deia entzunik
 Gertu lagundutera
 Pozarren batuten iako
 Bizkaitar gazteria,
 Guztiak Iainkoagaitik
 Emon naian bizia.

Itxirik erri laztanak
 Eunka doaz gudara
 Agintari dala *Matxin*
 Dalako bioztsua,
 Arierioak goituten
 Bizkortuteko onena.



Badoaz uin-zantsoka
 Pozturik itxas-urak
 Urrindutean lurretik
 Eiten dauez agurrak
 Ontzia bultza-bultzaka
 Badaroala aizeak.

Itsaso urdin barruan
 Mutil itxas gizonak
*Matxin*egaz doalako
 Pozik idoroten da
 Gura dau elduko balitz
 Gudarako erea.

Baiña beingoan balitz lez
 Amurrutu ekatxa
 Itxasoa astiñ-astinik
 Azten da orroaka
 Ikaratu al baleike
 Bizkaitar gaztedia.

Aire gogorrek bidea
 Galdu eragin dautso
 Ontsidia beragandik
 Urrin alden du iako
 Ta galduteko zorian
 Ito bearrik dago.

IV

Atsekabe ta estutasunez
 Mungiatarren biotza
 Samin-samiña dagon artean
 Argi bat agertuten da
 An ontziaren aurre alderantz
 Poztuaz biotz illuna:
 Beso indarrez orduan laster
 Aurrera doa ontzia

Batu gurarik
 Uintza ganetik
 Ontzi-lagunen ondora.

Miñaren miña! untzi talda bat
 Badator arin-arinka:
 Bizargorri dau beren nagusi:
 Txakurtzar amurrutua
 Dirudi ausi-eginik itzal
 Doana euren ganera
 Ixetuten da orduan *Matxin*,
 Goratuten dan aiotza
 Odolez dana
 Gorri-gorria
 Ikusi gura dauala.

Elduten iako arerioa
 Dariozala eskutik
 Tximizta garrak, eta orroaren
 Ago zabalaz esanik:
 «Alper-alperrik, ume makalok
 Eztaukezue indarrik
 Itxas burrukan iragoteko
 Gure bultzaka. Ken ortik!»
 Ai! etzekian
 Zeiñen eskuan
 Iausi bear zan bertatik.

Ikusi dozu berezi baten
 Zelan gose dan otsoa
 Bildoztsuari ieurtiten iakon?
 Era berean aiotza
 Esku batean diz-diz erainik
 Sartzen da *Matxin* argia
 Arerioen ontzi artean
 Illik botarik eundaka:
 Dana orduan
 Garrasia zan,
 Ill egarria zan dana.



Barriz zatitu badira aiotzak
 Ta galtzaidua ausi bada
 Bizkaitar ona ezta nekatu,
 Arturik gogor arrauna
 Trisketan deituz arerioak
 Auzpez botarik lurrera
 Bat baiño geian idoro ei zan
 Kendurik ontzi-burdiña
 Galtzaidua lez
 Eraiñik, auzpez
 Eun da eun itxi euzana.

Euzki argiak iru bat bider
 Erraiñuz zeru zabalak
 Edertu deituz: gudan dakusaz
 Geutarrak urrengo goizak.
 Mairu zantarren lotsa gorria
 Ez ikustarren euzkiak
 Astinduten dauz aixe gogorrez
 Itxasoko uin bizdunak
 Ta *Matxin* ona
 Garaitzatua
 Dakarde untzi lagunak.

V

Atsegin pizkat arturik
 Ta itxirik lur maitea
 Lagunakaz gure Matxin
 Barriz doa gudara,
 Gura dabela garaitu
 Turko arerioa.

Itxas barruan dagola,
 Bizkaiko kai ederrak
 Urrin itxirik atzean,
 Ieurtin dira Mairuak
 Matxinen untzi ganera,
 Botata amorru bitzak.

Baia ezta ikaratuten
 Bizkaitarren biotza
 Mairu bultzakia eusteko
Matxin zolituden da,
 Ligo bat legez erdian
 Aurkitzen da burruka.

Uriolaren antzean
 Mairutzarren odola
 Nastaten da itxas-urakaz
 Ontzitik ixurita:
 Ainbesterañño eskuak
 Darabil galtzaidua.

Gauza samina! su ta gar
 Guda egoanean
 Gure *Matxin* zauritua
 Iausiten da lurrean,
 Aurkituten dala laster
Barbarrojan aurrean.

Itanduten asten iako
 Arrokeriz beterik:
 «Kristinau antza badaukak
 Erantzi eik bertatik
 Turko biurtu bear dok
 Irauteko bizirik».

«Kristiuaua nok, Matxiñek
 Beldur barik dirautso,
 Sinistean biziko nok,
 Iakik, ill arteraiño,
 Naiz da egon miñ artean
 Lurrak dirauan aiño».

«Zer diñok? Beingo batean
 Aiotz ertz zorroztuak
 Sinizmenean badirauk
 Ebagiko euazak



Beratuten besoa
Bizitzaren ariak».

«Neuk ukatu! Neuk Iesusen
Siñizte ain donea
Neuk ukatu, neuk! Arren! ez...».
Orduan sorburua
Elagi eutsen aiotzaz
Zuloturik biotza.

Itxasoko uin astinok
Emon eutsen obia,
Izarrez-goiko iargoian
Iezarri zan arima
Atsegin daian betiko,
Zoriondun saria.

Igoizu, zoaz, usoa,
Ioten eres-gozoak,
Egazka zoaz zerurantz:
Ioan iatzuz nekeak
Asi iatzuz bai zeruan
Amai bagako pozak.

Matxin andia, garaitza
Lortu dozun ezker
Laguntza Euskaldunari
Emon gudaduteko
Bear dana iaditsirik
Seme ona izateko.

Begira, Matxin, begira
Euskalerra gaixora!
Ixuri ortik txinpartak
Erreteko deungea,
Maitatu daigun guzitok
Alkar da Ingoikoa.

Berton amaituten dogu irakurgai au geuk bere, zeuk beste obeago batzuek euskaldunen onerako atera daizuzala gura geunkela, Euskalerriko iazoera gomutagarriai bititza luze ta zorionekoa emon daioezun; erabate-ra oraingo ta gerokoai iragarriko dautsezu seme argi ta antxinakoen duiñak eta obeak bere izateko nortzuen oiñatzai iarraitu bear deuten, eta euroi iarkiten iakezanak lotsatu daitezcan, edo beintzat Amaren seme zintzoai galazo barik egiñen one-onetan, bakean itxi daioen euren arazo ta lanai daragoioenean.

Agur, adiskidea aintzat euki gura bagozuz; osterantzean bere laungoikoak lagundu daizula, ta agur onenbestegaz.

A.M.D.G.